

Txosten honek EAEko
haurren eta nerabeen
ongizateari lotutako
datu garrantzitsuenei
buruzko hausnarketa
egitera gonbidatzen
du, dimentsio anitzeko
ikuspegitik...

Euskadiko haurren eta nerabeen errealitatea kopurutan

2018



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red Bibliotekak del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2019ko uztaila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

edefundazioa

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritza.
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Aurkibidea

Sarrera	5
Hurbilketa demografikoa.....	6
Familia	8
Osasuna	14
Hezkuntza	19
Ongizate materiala	26
Kultura, aisialdia eta astialdia	30
Hurtzaro zaugarria.....	34
Ingurunea	41
Laburpena: adierazleen taula	44

Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak haurren eta nerabeen inguruko hainbat ikerketa sustatu ditu azken urteotan, kolektiboaren errealitatearen gaineko ezagutza zabaltzeko eta kolektibora askotariko ikuspegietatik hurbiltzeko xedez.

Diagnostiko-txosten honetan, EAEko haurren eta nerabeen errealitatearen azterketa orokorra egingo da, haurren eta nerabeen ongizatea azaltzeari eta aurreikusteari begira garrantzitsuenetakotzat jo diren estatistika-datu batzuetatik eta beren eskubideen eta bizikalitatearen ikuspegitik abiatuta.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean¹ jasotzen denaren ildoan, 0 eta 17 urte bitarteko biztanleei buruzko informazioa bildu da ikerketa honetan.

Txosten honetan jaso eta iruzkintzen diren datuek hausnarketarako bidea irekitzen dute, gaur egun garrantzitsuagotzat edo kritikoagotzat jo daitezkeen eta arreta nahiz jarraipen handiagoa behar duten kontuei dagokienez. Era berean, bilakaera eta aurrerapen ikusgarriak egiten lagundu dezakete datuok, informazioa antolatzeko erabili diren askotariko dimentsioei dagokienez: demografia, familia, osasuna eta sexualitatea, hezkuntza, ongizate materiala, kultura, aisialdia eta astialdia, haurtzaro zaugarria eta ingurunea.

Datu nagusiak, gainera, sexuaren eta adinaren arabera bereizita ere ematen dira, bai eta haurren eta nerabeen kolektibo heterogeneoaren barruan aurki daitezkeen aniztasunaren eta berezitasunen berri ematen lagundu dezaketen bestelako faktoreen arabera bereizita eman ere. Gainera, aurreko urteetako eta beste lurralde eremu batzuetako datuekin osatu eta alderatu dira datu berrienak, azterketari testuinguru-, denbora- eta geografia-esparru zabalagoa emate aldera.

Txostena irakurterrazagoa izan dadin, oin-oharren bidez edo dokumentuan bertan txertatutako oharren bidez jaso dira txosteneko datuen bigarren mailako iturriak.

Azkenik, adierazi beharra dago txosten honetan jasotzen diren datuak **adierazleen sistema** baten zati direla, zeina berariaz diseinatu den EAEko haurren eta nerabeen errealitatea monitorizatzeko. Bada, honako txosten hau osatzen duen beste txosten batean zehazten da sistema hori egiteko prozesua (*EAEko haurren eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema. 2018ko bertsio berria.*) Bigarren txosten horretan, gainera, datuen iturriei buruzko informazio xehea eta sistema osatzen duten adierazle guzti-guztien desagregazioa kontsultatu daiteke.

¹ 1989ko azaroaren 20an onetsi zen Hitzarmena, giza eskubideen nazioarteko itun gisara, eta, berori osatzen duten 54 artikuluetan, haurrak (18 urtetik beherako gizakiak) garapen fisiko, mental eta sozial osoa edukitzeko eta beren iritzia aske adierazteko eskubidedun gizabanakoak direla aitortzen da, eta gizarteko agente aktiboak izateko ahala ematen zaie. Hitzarmena, haurren eskubideei buruzko lehenengo nazioarteko legea, nahitaez bete beharrekoa da estatu sinatzaileentzat. Bada, ezar daitezkeen nazioarteko gainerako itunekin eta araudi erkidearekin batera, kolektiboaren eskubideak babesteko esparru unibertsala eratzen du Hitzarmenak, bai kolektiboa ikusarazteko, bai bere babesa eta garapena bermatzeko.

Hurbilketa demografikoa

EAEn,
365.671 haur
eta nerabe
bizi dira.
Euskal
biztanleen
% 16,67 da 18
urtetik
beherakoa.



2017ko datuen arabera, 18 urtetik beherako 365.671 haur bizi dira EAE

Biztanle adingabeen ehunekoa azken urteetan izandakoaren antzekoa da; hala ere, duela 10 urteko datuekin alderatuz gero (% 14,93), zertxobait igo dela ikus daiteke.

Ratio hori, aurreko urteetan bezalaxe, pixka bat txikiagoa da Bizkaian (% 15,89), eta handixeagoa Gipuzkoan (% 17,47) eta Araban (% 17,62). Edonola ere, estatu-mailako indizearen azpitik daude hiru lurraldeak, 18 urtetik beherakoen kolektiboak guztizko biztanleriaren % 17,84 hartzen baitu hor; halaber, indize europarraren (Europa-28) azpitik dago, % 18,71koa baita gutxi gorabehera².

2017	18 urtetik beherakoen kop.	18 urtetik beherakoen ehunekoa, guztizkoaren gainean
Araba	57.536	17,62
Bizkaia	182.482	15,89
Gipuzkoa	125.653	17,47
EAE	365.671	16,67

Iturria: INE. Errolda Jarraituaren Estatistika. 2017

Haurrek eta nerabeek gure autonomia-erkidegoan duten pisu baxu samarrak zerikusi zuzena dauka biztanleriaren zahartze-prozesuarekin. Errealitate orokorra da hori Europa osoan, eta zertxobait nabariagoa EAE

Jaiotze-tasa txikia da biztanleria zahartzeko prozesuaren arrazoi nagusietako bat.

Zentzu horretan, merezi du datuei begiratzea. 2016an, % 8,43koa zen jaiotze-tasa; hau da, 2016an, 8 jaiotza inguru egon ziren EAEko 1.000 biztanleko, baina tasa hori % 8,71koa izan zen 2015ean, eta % 9,38koa hamar urte lehenago. Ikus daitekeenez, aldi honetan beheranzko joera arin baina jarraitua dago. Europako jaiotze-tasa, aldiz, % 10,1ekoa da³.

Jaiotze-tasaren jaitsierarekin oso lotuta dago emakumeek beren lehenengo seme edo alaba edukitzeko adinean gertatu den pixkanakako atzerapenarekin. Argiago ikusteko, beha diezaiegun datu hauei: **emakume euskaldunen batezbesteko adina 31,8 urtekoa izan zen 2016an**; Espainian, ordea, 30,8koa izan zen, eta Europakoa 30,6koa⁴.

Datuei erreparatuta ikus dezakegu, halaber, EAEko biztanle adingabeen ehunekoari eusten ari zaiola, edo, are, gorantz doala, atzerritarrak Euskal Autonomia Erkidegora sartzeak dakarren faktore konpentsatzaileari esker. Haur eta nerabe atzerritarrak iristeak berez dakarren gehikuntzaz gain, emakume atzerritarren jaiotze-tasa gordina handiagoa izateak ere laguntzen du horretan. Zentzu horretan, emakume atzerritarren artean, jaiotze-tasa % 28,98koa da (emakume ez-atzerritarren tasa laukoizten du ia, % 7,3koa baita horiena), eta emakume horiek lehenengo seme edo alaba edukitzean duten batezbesteko adina 27,6 ingurukoa da (emakume ez-atzerritarrena, berriz, 32,47koa da).

² Iturria: INE. Oinarrizko adierazle demografikoak. 2017 eta EUROSTAT. Population (Demography, Migration and Projections). 2017

³ Iturria: INE. Oinarrizko adierazle demografikoak. 2017 eta EUROSTAT. Population (Demography, Migration and Projections). 2017

⁴ Iturria: INE. Ugalkortasun-adierazleak. 2017 eta EUROSTAT. Population (Demography, Migration and Projections). 2017

Zehazki, 26.668 haur eta nerabe atzerritar bizi dira EAEn⁵. Azken hamarkadan, biztanle adingabeen kolektiboan, nabarmen hazi da biztanle atzerritarren ehunekoa; 2005ean % 3,89koa izatetik 2007an % 5,3koa izatera eta 2017an % 7,29koa igaro zen. Hala ere, azken urteotan abiadura hori moteldu egin dela ikusi da (2015ean, tasa % 7,6koa zen). Aldea zertxobait murrizten joan bada ere, EAEko tasa estatu-mailan erregistratutakoa baino % 2 beherago dago (2017an, % 9,58koa zen). EBko estatuetatik bereizten gaituen aldea are handiagoa da, EBko tasa % 15,57koa baita, EAEkoaren bikoitza baino gehiago.

EAEko haurren eta nerabeen % 7,29 da atzerritarra.


Azpinarratzekoa da lurralde historikoen arteko aldea; bereziki, Bizkaiaren eta Arabaren artekoa: biztanle atzerritar adingabeen ehunekoa 6,31koa da lehenengoan, eta 10,55koa Araban. Gipuzkoa, berriz, autonomia-erkidegoko batezbestekotik hurbil dago (% 7,22).

Beste alde batetik, argitaratu diren hainbat ikerketatik ondoriozta daitekeenez, EAEn ijitoen etniako 5.600 adingabe inguru daude 16 urtetik beherakoak; hau da, adin-tarte horretako biztanleriaren % 1,72 dira gaur egun⁶.

Emakumeen pisuari dagokionez, adierazi beharra dago EAEko 18 urtetik beherako biztanleriaren % 48,57 hartzen dutela emakumeek, eta ehuneko hori ez dela apenas aldatzen adin-tarte ezberdinetan.

Grafiko honetan, biztanle-talde horren pisua ikus daiteke, adin-tarteen arabera bereizita:

18 urtetik beherakoek kop. 2017



Iturria: INE. Errola Jarraituaren Estatistika. 2017

⁵ Iturria: INE. Errola Jarraituaren Estatistika. 2017

⁶ Datuei zuhurtiaz heldu behar zaie. Ez dago inongo iturri ofizialik ijitoen etniako pertsonen kopurua zenbatzea ahalbidetzen duenik. Hori dela-eta, "Ijito Herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko azterketa" (2006) hartu da erreferentzia nagusitzat. Bertan adierazten denez, EAEn ijitoen etniako 14.000 pertsona inguru daude. "Espainiako ijitoen komunitateari buruzko gizarte-diagnostikoa" (2011) izeneko txostenak, aldiz, ijitoen etniako biztanleen % 40k 16 urte baino gutxiago dauzkatela jasotzen du. Guztizkoaren gaineko ehunekoa kalkulatzeko, INEren Errola Jarraituaren Estatistikaren arabera 2015ean 0 eta 15 urte bitartean zegoen biztanleria hartu da erreferentziazat.

Beste iturri batek, Arartekoak, *Hacia la equidad en salud* (2009) ikerketa aipatzen du, eta, horren arabera, EAEn 4.258 pertsona dira 15 urtetik beherakoak eta ijitoen etniakoak EAEn. Hala ere, datu horiek guztiak errealtate nahiko berri bat aintzat hartzen ez dutela adierazten du ikerketa horrek; izan ere, Europako ekialdetik datozen gero eta migratzaile gehiago dauzkagu gure artean, eta horien zati bat ijitoen etniakoa da.

Familia


Familia da erreferentziazko instituzio nagusia adin goiztiarrenetan. Eginkizun zentrala dauka haurren eta nerabeen eskubideen defentsan, eta gizarte-kohesiorako eta babeserako gune izateko balio du. Azken garaiotan egituraren eta bestelako kontuetan aldaketak izan dituen arren, bere eginkizunen artean egoten jarraitzen dute adingabeen zaintzak eta babesak, askotariko moduetan.

Eskuragarri dauzkagun azken datuekin bat eginez, 2015ekoak izaki horiek, EAEn 207.415 etxek edo familiak daukate 16 urtetik beherakoren bat; hots, euskal etxeen % 24k. Horien artean, 94.882 etxetan dago 6 urtetik beherako biztanleren bat (euskal etxeen guztizkoaren % 11), eta 52.576 etxetan bizi dira 2 urteko edo hortik beherako haurrak (euskal etxeen guztizkoaren % 6).

Familia-egiturak gero eta anitzagoak dira, eta 16 urtetik beherako biztanleak dauzkaten familia gehienak bikote-harremanean oinarritutako ezkontza-nukleoak izan arren (% 82), bestelako etxeen pisua gero eta handiagoa da.

207.415 euskal etxetan bizi dira 16 urtetik beherako pertsonak. Gehienak bikote-harremanean oinarritutako familia nuklearrak dira, baina pisua irabazi dute guraso bakarreko familiek eta berriz eratutakoek.

Guraso bakarrak eta beren seme-alabek osatutako familiak (bai ezkontza-ondokoak, bikotekidea hiltzearen edo banaketaren edo dibortzioaren ondorioz, bai ezkontzakoak ez diren nukleoak, bikote-harremanean oinarritu ez direnak) % 13,3 dira, eta nukleo bat baino gehiago elkarrekin bizi diren etxeak guztizkoaren % 3,87 dira. Guraso bakarreko etxe gehienetan (% 87), emakumea da buru.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskal Familien eta Familia-Etxeetako Inkesta (FFEI). 2015

16 urtetik beherakoen % 12 inguru bizi dira guraso bakarreko etxeetan, eta, gehienetan, emakumeak dira horietan buru.

Zehazki, euskal herritarren 16 urtetik beherakoen % 11,8 bizi da guraso bakarreko etxeetan. Familia mota horietan bizi diren adingabeen pisua bikoiztu egin da 2008tik⁷, orduan haur eta nerabeen % 6 baitziren.

Gainera, mendeko seme-alabak dauzkaten etxe nuklearren barruan⁸, gero eta gehiago dira berriro eraikitako familia-etxeak; hau da, bigarren (edo ondorengo) ezkontzan edo bikotean oinarritutakoak. Gaur egun, familia nuklearren % 3,8 dira horrelakoak, eta, horietan, seme-alaben harremana nukleo nagusia eratzen duten bikotekideetako batekin bakarrik duten seme-alabak elkarbizitzen egon daitezke (familia nuklearretako seme-alaben % 2,7k ez daukate seme-alaben harremanik biek)⁹.

Behatu den beste joeretako batek familien neurriarekin dauka zerikusia. Azken hamaika urteetan, mendeko seme-alabak dauzkaten familien batezbesteko neurria 3,97 kidekoa izatetik 3,76 kidekoa izatera igaro da¹⁰.

Familia-bizitza nolakoa den aztertzen badugu, EAEn 11 eta 18 urte bitartean dauzkaten haur eta nerabeak, oro har, familia-harremanekin oso pozik daudela ikusi da. **2014an egin zen azken kontsulta, eta, horren arabera, asebetetze-mailak 10etik 8,5 puntuko batezbestekoa lortu du (neskek eta mutilek emandako puntuatzeetan apenas alderik ez dagoela), lau urte lehenago erregistratutako zifraren oso antzekoa hori**¹¹.

Euskadiko familia eremuaren barruko komunikazioak ez dio alde handirik ateratzen estatu-mailan behatutako errealtateari. Adin horretako euskal biztanleen % 44,7k (11 eta 18 urte bitarteko nesken % 42,2k eta mutilen % 47,3k) argi eta garbi sentitzen dute familiarekin beren arazoez hitz egin dezaketela; horien % 5ek, ordea, horrelakorik inolaz ere egin ezin dezaketela uste dute¹².

Alderdi horiek eta familia barruko harreman mota ohikoenak oro har hobeto ulertu ahal izateko, garrantzitsua da familia-giroan igarotzen den denborari buruzko pistak ematen dituzten datuei begiratzea.

Familiak (bereziki, amek) duela urte batzuk baino denbora gehiago ematen dute seme-alabekin hitz egiten eta jolastan, baina familiako bizitza eta lanekoa bateragarri egiteko zailtasunek gora egin dute.

2014an jasotako datuen arabera, 18 urtetik beherako seme-alabak dauzkaten euskal biztanleen % 85ek hitz egiten dute eta iritziak trukutzen dituzte haiekin egunero edo ia egunero.

Amen artean hedatuago dago ohitura hori (amen % 89k egiten dute), aiten artean baino (% 80k egiten dute), eta aurreko urteetan baino askoz ere sarriagoa da (2002an zehazki, seme-alabekin maiztasun horrekin hitz egiten zuten biztanleak % 57 inguru ziren)¹³.

⁷ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Familia-Etxeetako Inkesta. 2008

⁸ Mendeko seme-alabek aritzean, etxean bizi diren seme edo alabetako batek 18 urte baino gutxiago dituela esan nahi da. Egoera bera gertatzen da, ordea, 18 eta 29 urte arteko seme edo alabaren bat familia-etxean bizi bada eta lanik gabe badago edo 30 urteko edo gehiagoko seme edo alabak desgaitasunen bat badu.

⁹ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskal Familien eta Familia-Etxeetako Inkesta (FFEI). 2015

¹⁰ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskal Familien eta Familia-Etxeetako Inkesta (FFEI). 2015

¹¹ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

¹² Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

¹³ Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoko Kabinetea. Familia EAEn. 2014

Iturri berberak adierazten duenez, seme-alaba adingabeak dauzkaten euskal biztanleen % 64k jolasten dute haiekin egunero edo ia egunero (amen % 65ek eta aiten % 63k); 12 urte atzera erregistratutakoak baino 19 puntu portzentual gehiago dauzka tasa horrek.

Dena dela, ez da bazter utzi behar hirutik batek ez duela txertatu seme-alabekin noizbehinka jolasteko ohitura, jolastea haurren garapenerako giltzarria den arren eta jolasen bidez dibertitzeko, ikasteko, adierazteko eta liluratzeko eskubidea eskubidetzat hartzen den arren (*Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 31. Artikulua*).

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoko Kabinetea. Familia EAEn. 2002-2014

Aurreko datuekin oso lotuta, euskal biztanle landunek seme-alaba adingabeak zaintzen ematen duten denbora beha dezakegu: 2017an, 4,2 ordukoa zen batezbestekoa eguneko. Dirudenez, zifra hori gora egiten ari da azken urteotan, 4 ordukoa baitzen 2016an, eta 3,7 ordukoa 2015ean eta 2012an. Datu gaurkotuenak banakatzean, **etxean adingabeak zaintzeko arduren sexu-banaketak desberdinkeriazkoa izaten jarraitzen duela ikusi da, aurreko urteetan bezalaxe**. Zainketa horietara bideratzen diren orduen batezbestekoa dezente handiagoa da emakumeen artean (5,1 ordu egunean), gizonen artean baino (3,3 ordu egunean). Zati batean behintzat, lan-merkatuaren segregazio bertikal eta horizontalarekin eta emakumeen enplegu partzialaren tasa batezbestekoaren gaintik egotearekin eduki dezake zerikusia emakumeek seme-alabak zaintzeko denbora gehiago inbertitzeak (% 50etik gorakoa da aldea)¹⁴.

Kontziliazioa da erronka handienetako bat lan-merkatuaren zati diren eta, aldi berean, inguruko pertsonen zainketa-lanak beren gain hartu behar dituzten pertsonentzat. 2011n, biztanle landunen % 26,7k zioten **zailtasun handiak zeuzkatela laneko eta familiako bizitzak bateragarri egiteko**, seme-alaba adingabeen zaintzari zegokionean; 2017an, berriz, ehuneko horrek **% 28raino egin zuen gora**. Aldea oso handia da gizon ala emakumea izan: gizonen % 29,7k diote zailtasunak dauzkatela, baina, enplegua daukaten emakumeen artean, zifra horrek % 26,2ra egiten du behera¹⁵.

¹⁴ Iturria: EUSTAT. Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Bateratzeari buruzko Inkesta. 2017

¹⁵ Iturria: EUSTAT. Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Bateratzeari buruzko Inkesta. 2017

Hein batean behintzat, honek arrazoitu dezake desberdintasun hori: egia izan arren azken urteotan gero eta gizon gehiagok eskatzen dituztela familiako eta laneko bizitzak bateragarri egiteko laguntzak, seme-alabak zaintzeko xedez enplegua uzteko edo lanaldia murrizteko aukerari emakumeek heltzen diote gehienbat. **2017an, 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketarako espedienteen eta 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentziarako espedienteen % 91,73 ebatzi ziren emakumeentzat (2015ean, % 92,52)¹⁶.**

Gehienbat, emakumeek hartzen dute lana uzteko edo lanaldia murrizteko erabakia, seme-alabak zaintzeari begira.

Nabarmendu beharra dago adingabeak zaintzeko lanaldi murrizketen eta eszedentzien espediente-kopurua asko gutxitu dela azken urteotan: 2010ean, 46.416 espediente izan ziren; 2012an, 34.420 izan ziren; 2015ean, 22.177 izan ziren, eta, 2017an, 20.936. Datu gehiagorik eduki gabe, eta erkatu beharko litzatekeen hipotesi modura, egitate horrekin erlazionatutako elementutzat har ditzakegu ekonomia-krisia –disuasio-alderdi gisa– eta emakumeen langabeziaren igoera.

Aurrekoaren ildoan, eta guraso askok familiako, laneko eta norberaren bizitzak bateragarri egiteko zailtasunak dauzkaten, hirugarren pertsonengan uzten da seme-alabak zaintzeko ardura, eta erronka berriak sortzen dira horrekin, heziketa-jarraibideei dagokienez.

Eskola-orduetatik kanpo, biztanle landunen 15 urtetik beherako seme-alaben artean, hamarretik ia sei ez dituzte gurasoek zaintzen. Gehienbat, senideren batek ematen die arreta, baina % 10,4 bakarrik geratzen dira etxean.

Oro har, lan- eta eskola-orduetan, eskola-zentroek eta haurtzaindegiek hartzen dute biztanle landunen 15 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko ardura. Eskola-orduetgitik kanpo, 2017ko datuen arabera, biztanle landunen 15 urtetik beherako seme-alaben % 58,3 ez dituzte gurasoek zaintzen; hau da, 2016ko % 66,2 baino ehuneko txikiagoan, baina 2015ean erregistratutako % 48,9 baino 10 puntu gorago.


Azpitarratzekoa da ehuneko hori % 56,1era jaisten dela –pixkatxo bat– 0 eta 2 urteko haurren artean, eta batezbestekotik hurbil dagoela gainerako adin-tarteetan.

Batez ere, senideren batek edo ordainsaririk jasotzen ez duen pertsonaren batek zaintzen ditu biztanle landunen 15 urtetik beherako seme-alaben % 40,4; ordainsaria jasotzen duen pertsonaren batek zaintzen ditu % 5,7, eta haur horien % 1,8k egonaldia luzatzen dute hezkuntza-zentroan edo haurtzaindegian (deigarria da ehuneko hori % 14,9koa izatea 2016an). Nabarmendu beharra dago gainerako % 10,4 bakarrik geratzen dela. Ehuneko hori hazi egin da aurreko kontsultatik (2016an, % 8 ziren), eta bikoiztu egin da 2015etik (% 5,3).

Eskola-orduetatik kanpoko zainketa gurasoek egiten dutenean (kasuen % 41,8 dira), lan hori bi gurasoek (seme-alaben % 21 zaintzen dituzte biek) edo amek bakarrik (% 17,2) egitea da ohikoena, haurren % 3,6 soilik zaintzen baitituzte aitek bakarrik.

¹⁶ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. 2017

Lanean ari diren biztanleen 15 urtez azpiko seme-alabak, eskola-ordutegitik kanpo laneko ordutegian zaintza nork hartzen duen kontuan hartuta. 2017



- Senide edo ordaindu gabeko pertsona batek zainduta
- Ordaindutako pertsona batek zainduta
- Ikastetxe edo haurtzaindegian zainduta
- Bakarrik geratzen da
- Amak zainduta
- Aitak zainduta
- Gurasoek zainduta

Iturria: EUSTAT. Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Bateratzeari buruzko Inkesta. 2017

15 urtetik beherako biztanleen artean bakardade- edo tristura-arazoak daudela ohartarazi dute ikerketa batzuek. Zehazki, adin-tarte horretako pertsonen % 0,9ri eragin liezaiekete arazo horiek¹⁷.

15 urtetik beherakoen % 1 inguruk daukate bakardade- edo tristura-arazoak (2.900 baino gehiagok), eta mendeko seme-alabak daukaten familien % 0,5 inguruk (1.400 baino gehiagok) aitortzen dute seme-alabekin harreman txarra dutela. Familia horiek guraso bakarrekoak izaten dira gehienbat¹⁸.

Azkenik, familientzako laguntzei dagokienez, eta 2016ko azken datuen arabera, familia/seme-alaba funtziorako gizarte-prestazioetan egindako gastu publikoa 498.517.000 eurokoa izan zen EAEn, aurreko txostenean jasotako zenbatekoa baino pixka bat handiagoa hori (2014an, 483 milioi euro izan ziren); hamar urte lehenago erregistratutako zenbatekoa, ordea, % 80an gainditzen du ia (2006an, 278 milioi eurokoa izan zen gastua).

Familia/seme-alaba funtziorako gizarte-prestazioetan egindako gastu publikoa EAEn	
2016an:	498.517.000 €
2015ean:	496.455.000 €
2014an:	483.440.000 €
2013an:	449.671.000 €
2012an:	486.585.000 €
2006an:	278.069.000 €

Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren Kontua. 2006-2016

Administrazio publikoak familiei laguntzeko sustatzen dituen estrategien artean, laneko eta familiako bizitzak bateragarri egiteko diru-laguntzekin zerikusia daukatenak gailentzen dira (2017an, 31.062.000 euro bideratu ziren EAEn). Zifra hori, 2016koa baino zertxobait txikiagoa izan arren, aurreko txostenean (2015ekoan) erregistratutako zifra baino % 36 handiagoa da.

¹⁷ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (GZEE). Gizarte Premiei buruzko Inkesta (GPI). 2014

¹⁸ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskal Familien eta Familia-Etxeetako Inkesta (FFEI). 2015

Laneko eta familiako bizitzak bateragarri egiteko diru-laguntzetarako gastu publikoa EAEn	
2017an:	31.062.000 €
2016an:	31.362.000 €
2015ean:	22.796.326 €
2014an:	24.910.442 €
2012an:	29.163.737 €
2010ean:	27.143.020 €

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. 2010-2017.

Osasuna

Espainiako estatuak, *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren* sinatzailea den heinean, bere lurraldean bizi diren haurrei eta nerabeei ahalik eta osasun-maila handienaz gozatzea bermatzeko konpromisoa dauka. Hitzarmen horrek **24. artikuluan** jasotzen duenez, haurrek mediku- eta errehabilitazio-zerbitzuak **edukitzeko eskubidea** daukate; bereziki, lehen mailako **osasun-arretarekin**, prebentziozko zainketekin eta haurren heriotza-tasaren murrizketarekin zerikusia duten zerbitzuak jasotzekoa. Eta, ildo berean, estatuaren betebeharra da haurren osasunerako kaltegarriak diren jarduerak deuseztatzeko edo murrizteko behar diren neurriak hartzea.

Osasun-sistemen garapen-maila neurtzeko erabili izan den adierazle nagusietako bat izan da haurren heriotza-tasa. 2016ko datuen arabera, EAEn urtebetetik beherako 2,47 haur hiltzen dira bizirik jaiotako 1.000 haurren artean, eta, duela hamar urte, tasa hori % 3,3koa zen gure autonomia-erkidegoan; beraz, aldi honetan adierazle horrek behera nabarmen egin duela ikus daiteke. Tasa hori estatukoa baino txikiagoa da, gaur egun % 2,64koa baita hor¹⁹.

Adingabeen heriotza-tasa espezifikoari dagokionez (hau da, 18 urtetik beherako 1.000 pertsonaren artean dagoen heriotza-kopuruari dagokionez), 2016an tasa % 0,22koa²⁰ zela beha daiteke, eta azken urteotan egonkor mantendu dela (2014ko aurreko txostenaren balioa errepikatzen da). Halaber, denboran tasak behera nabarmen egin duela ikus daiteke (2001ean, balioa % 0,33koa zen).

Osasunaren inguruan ikuspegi zabaletik abiatuta hitz egiten dugunean, gizarte baten osasun-arazo ohikoenei, biztanleriak elikadurarekin edota substantzien kontsumoarekin dituen ohituei, sexu-harremanei eta abarri begiratu behar diegu.

EAEko azken datuen arabera, 2018koak horiek, 15 urtetik beherakoen % 13,4k daukate osasun-arazo kronikoren bat (mutilen % 16,2k eta nesken % 10,5k); hala nola, kataratak, gorraizea, tiroidea, asma, alergia, minbizia, antsietatea, depresioa, anemia eta abar.²¹

Nabarmenak dira familiaren maila sozioekonomikoaren arabera dauden aldeak, maila sozioekonomiko txikiagoa duten familien %17,5k²² baitauka arazo kronikoren bat, eta % 11,4ra²³ jaisten baita intzidentzia egoera sozioekonomiko hobea dutenen artean.

¹⁹ Iturria: INE. Oinarrizko adierazle demografikoak. 2006-2016.

²⁰ Iturria: INE. Biztanleriaren mugimendu naturalak eta Errolda Jarraituaren Estatistika. 2001-2016

²¹ Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta. 2018

²² Erreferentziazko pertsonaren lanbidean oinarritzen da maila sozioekonomikoa. Behe-mailako kategorian, gaitu gabeko langileak daude.

²³ Erreferentziazko pertsonaren lanbidean oinarritzen da maila sozioekonomikoa. Maila altuko kategorian, berriz, 10 soldatapeko edo gehiago dauzkaten establezimenduetako zuzendariak eta kudeatzaileak eta unibertsitateko lizentziekin lotu ohi diren profesionalak daude.

14 urtetik beherakoen % 1,5k baino pixka bat gehiagok daukate mugaketa kronikoren bat beren eguneroko bizitza garatzeko (4.875 haurrek dute aniztasun funtzionala).

Desgaitasunari dagokionez, iraupen luzeko mugaketatzat eta edozein osasun-arazo kronikoren ondoriozkatat hartuta hori, Euskal Autonomia Erkidegoko azken Osasun Inkestak²⁴ dio EAEko 0 eta 14 urte bitartekoen % 1,5k dutela beren adineko eta sexukoaren artean ohikoak diren jarduerak iraunkorki (guztiz edo partzialki) egitea galarazten dien mugaketa kronikoren bat eta, adibidez, hezkuntza-zentrora joateko laguntza behar dutela. Aniztasun funtzionala duten 4.875 neska-mutilez ari gara, gutxi gorabehera.

Osasun Inkesta Nazionalak 8 eta 14 urte bitartekoen osasun emozionalarekin loturiko bizi-kalitatea neurtzen duen indize espezifiko bati buruzko informazioa ematen du (indize horrek mugitzeko, norberaren burua zaintzeko eta eguneroko jarduerak egiteko arazoak, mina edo ondoeza eta antsietatea edo depresioa neurtzen ditu). EAEko haurrek bizi-kalitatearen inguruko balio ezin hobeak daukate osasunari eta ongizate emozionalari dagokienez, Europar haurren osasun arloko adierazle onenak daukaten herrialdeetako antzekoak. 0 eta 100 punturen arteko balioetan (100 izanik puntuatze onena), EAEko emaitzak 86,71 puntukoak dira²⁵.

Haurren garapena prozesu dinamiko oso konplexua da, eta, bertan, askotariko alderdiek jarduten dute elkarreaginean. Bada, 0 eta 6 urtekoen artean alderdi horietako bat asaldatzen bada, haurren garapenerako arriskua sortzen da. Balioesten denez, asaldura horiek arriskua ekartzen dute, eta adin-tarte horretako haurren % 10engan nahasmenduak²⁶ eragitera iritsi daitezke. Ebidentzia zientifikoak, halaber, agerian jarri du nahasmendu horietako batzuk saihestu daitezkeela, beste batzuk zuzendu daitezkeela (zati batean, behintzat), eta nahasmendu askoren ondorio negatiboak behar bezala jorratuta arindu daitezkeela. Nahasmendu horiek ahal den neurrian eta osasun-, gizarte- eta hezkuntza-ikuspegi orokorretik abiatuta prebenitzeko eta tratatzeko esku-hartzeen multzoari arreta goiztiarra esaten zaio.

Foru-aldundiek emandako datuekin bat eginez, **0 eta 6 urte bitarteko 2.974 adingabe inguru artatu dituzte 2017an arreta goiztiarreko zerbitzu- eta baliabide-sarean**. Hala ere, kontuan hartu behar da erakunde batzuek arreta goiztiarreko zerbitzuak ematen dituztela Osakidetzarekin itunduta, sare horretatik harago, eta, era berean, Osakidetza eta Hezkuntza ere horrelako zerbitzuak ematen dituztela zuzenean²⁷.

Aurrekoarekin lotuta, adierazi beharra dago aniztasun funtzionala duten eta zaugarritasun-egoera berezian dauden haur horiek guztiek arreta mota hori jasotzeko eskubidea dutela eta halaxe jasota dagoela *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean*; izan ere, **23. artikuluan** xedatzen denez, mentalki edo fisikoki **ezinduta** dauden haurrek **bizitza oso eta egokiaz gozatu** beharko dute, beren duintasuna ziurtatuko duten, bakarrik hainbat gauza egiteko gai izatera iristea ahalbidetuko dieten eta komunitatean modu aktiboan parte hartzea erraztuko dieten baldintzetan.

²⁴ Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzak. Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta. 2018

²⁵ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Osasun Inkesta Nazionala. 2017

Osasunarekin loturiko bizi-kalitatea neurtzeko, EuroQol taldearen jabetzako neurketa-tresna bat erabili da: © 2009 EuroQol Group. EQ-5D-5L (TM) is a trademark of the EuroQol Group.

²⁶ Nahasmendu edo asaldura hauei buruz ari gara: funtzio motorren garapen-nahasmendua, garapen kognitiboaren nahasmendua, zentzumenen garapenaren nahasmendua, hizkuntzaren garapenaren nahasmendua, garapenaren nahasmendu orokortua, portaeraren nahasmendua, nahasmendu emozionalak, adierazpen somatikoaren garapenaren nahasmenduak, eboluzio-atzerapena.

²⁷ Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintzarako Saila), Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politiken Saila) eta Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea).

Elikadura eta osasuna elkarri lotutako kontuak direnez, garrantzitsua da herritarrek elikaduraren arloan dauzkaten ohiturak ezagutzea. Gaur egun, mundu-mailako kezka nagusietako bat da obesitatea. Haurrak ez daude elikagai hiperkalorikoak hartzeko eta sedentarismoan egonkortzeko joera gorakorretik salbu, eta horrek, besteren artean, etorkizunean obesitatea edukitzeko, heldutan desgaitasunen bat izateko, arnasketa-arazoak garatzeko eta arazo kardiobaskularrak izateko arriskua areagotzen du.

2 eta 17 urte bitartekoen ia % 11k daukate obesitatea. Azken urteotan hazi den arazoa da hori, eta gehiago eragiten die mutilei eta maila sozioekonomiko txikiagoa duten familietan bizi direnei.

Azken urteotan, areagotu egin da obesitatea duten haurren eta nerabeen ehunekoa. Zehazki, euskal herritarren 2 eta 17 urte bitartekoen % 5,14k obesitatea zuten 2006an; 2011n, % 6,97ra igo zen zifra hori, eta, 2017ko azken inkestaren arabera, % 11,1ean dago ehunekoa, estatuko batezbestekoaren gainetik lehen aldiz (% 10,3koa da estatuan). Aurretik behatutako joerari eutsi zaió. Horren arabera, obesitatearen arazoak gehiago eragiten die mutilei (% 12,8), neskei baino (% 9,42).²⁸

Familien maila sozioekonomikoaren arabeko aldeak berriro egiaztatu ez ezik, nabarmenagoak ere egin dira. Elikadura-portaerekin erlazioa litezke alde horiek, baina baita, azken buruan, krisia baliabide gutxiago duten etxeetako jarreraren gainean edukitzen egon litekeen eraginarekin ere. Maila sozioekonomiko baxuko familietako haurren % 15,41ek daukate obesitatea, maila sozioekonomiko altua duten familietan bizi diren haurren % 5,41en aldean.

Iturri berberaren arabera, obesitatea eta gehiegizko pisua dutenak kontuan hartuz gero, 18 urtetik beherako euskal biztanleen % 24,69 koka ditzakegu hor. Kasu horretan, estatuko batezbestekoa baino pixka bat beherago dago zifra (estatuan, % 28,56koa da).

Bestetik, lo-orduak suspertze pasiboko eta burmuinaren jarduerarik gabeko aldiak ez direla balioesten badugu; hau da, frogatu denez, ikaskuntzak sendotzean eta askotariko prozesu fisiologiko, psikiko eta intelektualetan garrantzi handia dutela pentsatzen badugu, kontuaren gaineko jarraipena egitea komeniko da. Bada, 11 eta 18 urte bitarteko euskal hurrek 8,6 orduz egiten dute lo, batez beste, aste barruan (Espainian, batezbestekoa 8,2 ordu ingurukoa da), baina batezbesteko horrek behera egiten du adinak gora egin ahala (17 eta 18 urte bitarteko nerabeek 7,9 ordu egiten dituzte lo, batez beste)²⁹.

Halaber, garrantzitsua da tabakoarekin, alkoholarekin eta bestelako drogekin dituzten ohituren gaineko jarraipena egitea, osasunaz gain beste dimentsio batzuetan duten inpaktuagatik (hala nola, aisialdian, hezkuntzan eta abarrean).

²⁸ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Osasun Inkesta Nazionala. 2017

²⁹ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Jaitsi egin da alkoholaren ohiko kontsumoa eta bereziki asteburuetako gehiegizko kontsumoa eta arrisku-kontsumoa, baina oraindik ere 12 eta 18 urte arteko eskola-garaiko populazioaren % 20 ingururi eragiten dio.

Nerabeen artean normalizatuen dagoen substantzien kontsumoa alkoholarena da. Eskuragarri dauden azken datuek, 2017koek³⁰, adierazten dutenez, unibertsitatekoa ez den eskola-garaiko populazioaren % 40,3k ohikotasunez kontsumitzen du alkohola (kontsulta egin aurreko 30 egunetan gutxienez behin alkohola kontsumitu du). Zifra horrek duela bost urtekoarekin alderatuta ehuneko 5,2 puntuko jaitsiera izan du (% 45,5ek edaten zuen 2011n), eta 11 puntu baino gutxiagokoa, berriz, duela 11 urtekoarekin alderatuta (% 57,8k edaten zuen 2006an).

Kontsumoaren nagusitasuna handiagoa da adinak gora egin ahala; 12 urterekin populazioaren % 4,6k kontsumitzen du alkohola; 14 urterekin, % 30,2k, eta 16 urterekin, berriz, % 56,5ek.

Bereziki jaitsiera nabaria gertatu da asteburuetan gehiegizko kontsumoa edo arrisku-kontsumoa egiten duten eskola-garaiko populazioaren proportzioan. Tasa, gaur egun, % 20³¹ ingurukoa da, eta oraindik ere adierazgarria den arren, 2011n baino ehuneko 11,6 puntu baxuagoa da, eta 2006an baino ehuneko 16,3 puntu baxuagoa (orduan % 36,3koa zen). Lehen mozkorraldiaren batez besteko adina, aurreko urteetan bezala, 14 urte inguruan dago orain ere.

Iturri beraren arabera, nerabeen artean tabakoaren kontsumoa ere baliteke jaitsi izana azken urteetan, aurreko kontsultan identifikatutako goranzko joera lehengoratu. Eskola-garaiko 12 eta 18 urte arteko populazioaren % 17,7 inguruk kontsumitzen du tabakoa ohikotasunez³², duela sei urte baino ia ehuneko 7,6 puntu gutxiago (2011n % 25,3k erretzen zuen).

Erretzen duten nerabeen proportzioa azken 6 urteetan jaitsi egin da, aurreko kontsultako goranzko joera lehengoratu.

Beste alde batetik, 12 eta 18 urte bitartekoen % 25,3k azken urtean kalamua erre dutela kalkulatu du ikerketak; beraz, kontsumoak behera egin du aurreko urteetan jasotako datuei dagokienez (2011an % 28,3ak eta 2006an % 35,6ak). Kalamuarekin, kontsumo-tasa handiagoa da mutilen artean (% 31), nesken artean baino (% 23).

Kontsumoak gora egiten du adinak ere gora egin ahala; hala, 13 urtekoen % 4,5k eta 17 urtekoen % 44,6k erre dute kalamua azken urtean.

³⁰ Iturria: Drogamendekotasunen Deustu Institutua. Drogak eta Eskolak IX. 2017

³¹ Iturri honek eskola-garaiko populazioaren kontsumoa kalkulatu du eta kategoriatan sailkatzen du edandako edari moten eta kantitatearen arabera, haien alkohol-graduazioa kontuan hartuta.

³² Ohiko kontsumoari dagokio, azken 30 egunetan tabakoa erre duten adingabekoen ehunekoari.



Iturria: Droga-mendekotasunen Deustu Institutua. Drogak eta eskola IX. 2017.

Indar handiagoa hartu duten jokaera arriskutsuen artean, Interneten gehiegizko erabilera eta zorizko jokoen eta apustuen gorakada ere aipatu behar ditugu. Azken horri dagokionez, 2017ko datuen arabera, **15 eta 34 urte arteko euskal biztanleen % 12,9 har daitezke zorizko jokoen eta apustuen jokalarik aktibotzat**; hau da, gutxienez astean behin jokatzen dute edota urtean 500 € edo gehiago gastatzen dute. % 2,9 har daitezke arrisku-jokalarizat edo gehiegizko jokalarizat³³. Tasa orokorrak 2012tik zertxobait behera egin badu ere (% 14,1), arrisku-egoeran dauden biztanleen ehunekoak pixka bat gora egin du aldi berean (2012an, % 2,1ekoa izan zen).

Gaia aldatuz, eta heziketa afektibo-sexualak azken urteotan aurrerapauso nabarmenak egin baditu ere, ikerketa batzuek adierazten dute arreta ematen jarraitu beharko litzatekeela eta eremu horretan emakumeen eta gizonen berdintasunean nahiz sexu-aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako gaitasunak lortzen lagundu beharko litzatekeela.

Batez beste, 15 urterekin edukitzen dute lehenengo sexu-harreman osoa.

2014ko datuen arabera, lehenengo sexu-harreman osoa 14,9 urterekin edukitzen dute harreman mota horiek eduki dituztenek³⁴.

Sexu-harremanak izan dituzten 14 eta 18 urte bitarteko euskal gazteen % 91,7k diote antisorgailu-metodo segurua (preserbatiboa edo pilula) erabili dutela, zortzi urte lehenago (2006an) erregistratutakoaren ehuneko berbera ia eta estatuan gaur egun dagoen batezbestekoaren gainetik (% 85,5).

Horri dagokionez, adierazi beharra dago 2017an 1,17 jaiotza gertatu zirela 15 urteko edo hortik beherako mila neska euskalduneko, eta datua bereziki altuagoa da jatorri atzerritarra duten neskengan (% 9,99). Euskal tasa estatuko batezbestekoaren azpitik dago (% 2,05), eta behera egin du azken urteotan, baina oso arin (2016an, % 1,43; 2014an, % 1,37; 2000n, % 1,38³⁵).

³³ Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Euskadi eta drogak. 2017

Gehiegizko jokalaririk dira gutxienez astean behin jokatzen dutenak edota urtean 500 € edo gehiago gastatzen dutenak eta gehiegizko jokari buruzko indize kanadarreko bederatzi galderetatik bati gutxienez baietz erantzuten diotenak.

³⁴ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2006-2014

³⁵ Iturria: INE. Oinarrizko adierazle demografikoak. 2000-2014-2017.

Hezkuntza

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 28. artikulua jasotzen duenez, haur orok dauka **hezkuntzarako eskubidea**, eta estatuaren betebeharra da, gutxienez, doako eta derrigorrezko Lehen Hezkuntza ziurtatzea, bigarren hezkuntzaren garapena sustatzea, goi-mailako hezkuntza guztientzat irisgarria izatea eta, premia dagoenean, hartu beharreko neurriak hartzea (hala nola, laguntza finantzarioa). Era berean, haurrak eskolara modu erregularrean joateko neurriak eta absentismo- eta abandonu-tasak murrizteko neurriak hartu behar ditu estatuak. Halaber, ezartzen duenez, eskolako diziplina-ezarpenak haurren duintasuna errespetatu behar du.

Hezkuntzaren bidez, haurrek eta nerabeek bere nortasuna garatzen dute, eta heldutako bizitzan agertzen joango zaizkien aukerak areagotzeko moduko gaitasun pertsonal eta sozialak eskuratzen dituzte. Azken buruan, hezkuntzak norbanakoaren nahiz gizarte osoaren garapenean eragin handia duela esan nahi du horrek guztiak.

«Oinarrizko hezkuntzak pertsona guztiek hezkuntzarako duten eskubidea bermatu behar du; beraz, planteamendu etiko batetik, parekidetasunari eta gizarte-justiziarri dagokienez, hezkuntzak aukera-berdintasuna eman behar du, inolako diskriminaziorik gabe, eta desberdintasun ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta pertsonalak konpentsatzeko zeregina dauka. Horrenbestez, inklusioaren printzipioak gidatuko ditu hezkuntza-administrazioa, hezkuntzako arduradunak eta hezkuntza-komunitateko profesional eta kide guztiak, hezkuntza ulerkor eta pertsonalizatua sustatzeko, oinarrizko eta derrigorrezko hezkuntza amaitu artean. Osagarri modura, hezkuntza-sistemaren erronka izan behar du bikaintasun-mailara ahalik eta ikasle-kopuru handiena iristek»³⁶.

Heziketa-etapak amaitzean, zeharkako, diziplinazko eta oinarrizko gaitasunak lortzeko mailara iritsi behar dute ikasle guztiek, helduarora sartu ahal izan daitezkeen eta gaitasun horiek garatzen, mantentzen eta eguneratzen jarrai dezaten etengabeko ikaskuntzaren bidez, beren proiektu pertsonalean arrakasta lortze aldera.



2017-2018 ikasturtean, 353.374 haur eta nerabe matrikulatu ziren EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-zentroetan, aurreko ikasturtean baino 1.555 gehiago. Horietako 176.932 Bizkaian, 120.339 Gipuzkoan eta 56.103 Araban.

Haur Hezkuntzako ikasleak guztizkoaren % 25 dira ia; Lehen Hezkuntzakoak % 37; DBHko ikasleak % 23 baino zertxobait gehiago; Batxilergokoak % 8,65; oinarrizko Lanbide Heziketakoak % 1,29, eta erdi-mailako Lanbide Heziketakoak % 4,19.

Nabarmendu beharra dago 2 urtetik aurrerakoak eskolatuta daudela oro har. **Haur Hezkuntzako eskolatze-tasa urterik urte hazi da EAEn , eta, zehazki, 2016-2017 ikasturtean, 2 urtekoen % 93,5 eskolatu ziren, eta 5 urtekoen % 99,8**³⁷. Eskura ditugun azken datuen arabera, 2015-2016 ikasturtean 2 urtekoen eskolatze-tasa % 57,2koa zen Espainian³⁸.

³⁶ Heziberri 2020 – Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua, hezkuntza arloko printzipioak.

³⁷ Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2016/2017

³⁸ Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Hezkuntzako Adierazleen Estatuko Sistema. 2018

2016-2017 ikasturteko datuekin bat, euskal ikasle emakumeak guztizkoaren % 47,42 dira, eta pisu berberari eusten dio hezkuntza-maila guztietan, Batxilergoan (% 52,52 dira) eta Lanbide Heziketan izan ezik (oinarrizko Lanbide Heziketan ikasleen % 29,76 dira, eta, erdi-mailako Lanbide Heziketan, % 34,6). Ikasle emakumeen pisua bereziki murriztagoa da zientziarekin eta teknologiarekin zerikusia duten adarretan, gaur gaurkoz prestakuntza-ibilbideak hautatzean oraindik badagoen sexu-segregazioaren isla.

Unibertsitatez kanpoko araubideko zentroetan matrikulatuta dauden ikasleak, irakaskuntza-mailaren eta emakumeen, atzerritarren eta Hezkuntza Bereziko ikasleen pisuaren arabera. EAE. Absolutuak eta %.

	Absolutuak	%	ikasle emakumeen %
Unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko zentroetan matrikulatuta dauden ikasleak	353.374	100,00	47,20
Haur Hezkuntza	88.191	24,95	48,55
Lehen Hezkuntza	130.489	36,92	48,34
Hezkuntza Berezia (haur/lehen)	487	0,13	32,2
DBH	83.286	23,56	48,65
Hezkuntza Berezia (DBH)	370	0,09	27,72
Batzilergoa	30.574	8,65	53,15
Oinarrizko LH	4.584	1,29	29,53
Erdi-mailako LH	14.827	4,19	35,05
Hezkuntza Berezia (zereginen ikaskuntza)	566	0,16	40,99
Hezkuntza Berezia guztira	88.191	0,40	-
Bizkaia	176.932	50,06	47,59
Gipuzkoa	120.339	34,05	47,22
Araba	56.103	15,87	47,32

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2017-2018 ikasturtearen aurrerapena eta 2016-2017 ikasturteko ikasle emakumeen datuak.

Hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleak guztizkoaren % 0,4 ziren (1.423 pertsona), eta nabarmena izan da ikasle emakumeen pisua maila guztietan askoz ere txikiagoa izatea (% 32,2 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan; % 27,72 DBHn, eta % 40,99 zereginen ikaskuntzan)³⁹.

Haur eta gazte guztiak hezkuntzara sartu ahal izatea bermatzen du eskola inklusiboak, baina ez edozein hezkuntzataraz sartzea, baizik eta kalitatezko hezkuntzara –justua eta guztiontzat bidezkoa den horretara– aukera berdintasunean sartzea.

Funtsean, aditu guztiek egiten dute euskarridun eskola inklusiboaren alde, hezkuntza-laguntza zehatzen bat behar duten hurrei oztopoak kendu eta aukerak sorrarazteari begira. Ildo horretan, eskola inklusiboaren esparruan arreta goiztiarra eta erantzun hezitzailea indartzen jarraitu behar dela diote.

2016-2017 ikasturteko datuen arabera, EAEn hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleen % 92,8 dago ohiko zentroetan sartuta.

Aipatzeko modukoa da 2016-2017 ikasturtean, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen % 92,8 ohiko ikastetxeetan dagoela. Ikasgela egonkorretan edo hezkuntza-premia bereziak dituzten ikastetxeetan eskolatutako ikasleen ehunekoa nabarmen baxua da (hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle guztien artetik % 7,2) eta horietatik % 35,5 soilik daude hezkuntza-premia bereziak dituzten ikastetxeetan eskolatuta, eta gainerako % 64,5 ikasgela egonkorretan daude ohiko ikastetxeetan⁴⁰.

³⁹ Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika.

⁴⁰ Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila. Estatistika Sekzioa. 2016-2017.

Euskal hezkuntza-sistema ezaugarritzen duten alderdietako batek zerikusia dauka zentro pribatu itunduek duten matrikulazio-tasa handiarekin. Zehazki, zentro publikoetan eskolatuta dauden ikasleak guztizkoaren % 50,46 dira, eta alde handiak daude lurralde historikoen artean: Bizkaiko % 48,85etik Arabako % 58,23ra joan gaitezke, eta Gipuzkoa batezbestekoa baino zertxobait gorago dago (% 51,71). Edonola ere, euskal tasetatik edozein dago estatuko 2015-2016 ikasturteko batezbestekoaren oso azpitik (% 67,41).

Irakaskuntza-mailaren araberako desberdintasunak ikusi dira. Zentro pribatueta egiten diren matrikulazioek gora egiten dute bigarren hezkuntzatik aurrera.

Nabarmenezkoa da, hala ere, jatorri atzerritarra duten ikasleen banaketak (bi sistemen artekoak) ez diola joera orokorrari jarraitzen, ikasle horien % 68,18 baitaude zentro publikoetan matrikulatuta.

EAE: 2017/2018	%
Ikasle guztien artean, (unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko) zentro publikoetan matrikulatuta dauden ikasleak	50,46
Bizkaia	48,85
Gipuzkoa	51,71
Araba	58,23
Espainia (2015-2016 ikasturtea).	67,41
Haur Hezkuntza	52,07
Lehen Hezkuntza	51,89
Hezkuntza Berezia (haur/lehen)	48,13
DBH	46,33
Hezkuntza Bereziko ikasleak (DBH)	54,59
Batxilergoa	48,51
Oinarrizko LH	28,66
Erdi-mailako LH	62,47
Hezkuntza Berezia (zereginen ikaskuntza)	61,48
jatorri atzerritarra dutenak	68,18

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2017-2018 ikasturtearen aurrerapena. Espainiako estatuari dagokion datua izan ezik: Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzaren Estatistika.

Hezkuntza sistemaren barruan aztertu beharreko beste kontuetako bat da ikasleek hautatutako hizkuntza-eredua. Zentzu horretan, ikasleen % 69,44k ikasten dute D ereduan; hau da, Gaztelania eta Literatura gaztelaua izan ezik, ikasgai guztiak ikasten dituzte euskaraz.

Bizkaiko tasa batezbestekoa baino pixka bat txikiagoa da (% 61,7); Gipuzkoan, berriz, nabarmen handiagoa da (% 82,26), eta Araba da batezbestekotik gehien urruntzen dena (% 51,36).

D ereduan matrikulatuta daudenen pisuak aldeak dauzka, lurralde historikoz gain, baita hezkuntza-mailaren arabera ere. Hala, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, D ereduan matrikulatuta dauden ikasleak guztizkoaren % 79,42 eta % 74,03 dira, hurrenez hurren; DBHn, erdi-mailako LHn eta oinarrizko LHn, berriz, asko murrizten dira ehuneko horiek, % 37,34, % 19,4 eta % 1,29 baitira, hurrenez hurren.

EAE: 2017/2018	%
Ikasle guztien artean, (unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko) zentroetan D ereduan matrikulatuta dauden ikasleak	69,44
Bizkaia	61,70
Gipuzkoa	82,26
Araba	51,36
Haur Hezkuntza	79,42
Lehen Hezkuntza	74,03
Hezkuntza Berezia (haur/lehen)	23,41
DBH	37,34
Hezkuntza Bereziko ikasleak (DBH)	32,16
Batxilergoa	62,97
Oinarrizko LH	1,29
Erdi-mailako LH	19,40
Hezkuntza Berezia (zereginen ikaskuntza)	40,28

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2017-2018 ikasturtearen aurrerapena.

B eremuan (eredu elebidunean) matrikulatuta dauden ikasleak % 19,02 dira, eta A eremuan ikasten dutenak (hau da, ikasgai guztiak gaztelaniaz ikasten dituztenak, Euskara ikasgai bat gehiago izanik) % 10,93 dira.

2016-2017 ikasturteko datuen arabera, atzerrian jaiotako ikasleak euskal ikasleen % 8,5 dira, aurreko ikasturtean baino pixkatxo bat gehiago (% 7,1).

Lurralde historikoaren arabeko aldeek demografiaren atalean adierazitako aldeak islatzen dituzte; bada, Arabako tasa % 10,19koa da, eta Bizkaikoa % 6,4koa.

Nabarmenezko beste datu bat da ikasle atzerritarrek zentro pribatuetan duten ehunekoaren eta zentro publikoetan duten ehunekoaren aldea: zentro pribatuetan, ikasleen % 4,72 dira, eta, publikoetan, % 11,93.

EAE: 2016/2017	%
Ikasle guztien artean, atzerrian jaio diren ikasleak (unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko zentroetan)	8,5
Haur Hezkuntza	7,55
Lehen Hezkuntza	6,96
DBH	6,66
Batxilergoa	4,82
HLPKko ikasleak	
Erdi-mailako LH	10
Hezkuntza Berezia guztira	
zentro publikoak	11,93
zentro pribatuak	4,72
Bizkaia	7,62
Gipuzkoa	8,74
Araba	10,78

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2016-2017 ikasturteko datu orokorrak

Europa 2020 Estrategiaren xede nagusietako bat da % 10etik behera kokatzea hezkuntzaren eta prestakuntzaren abandonu goiztiarraren tasa. Frogatuta dago eskola-abandonuak oso ondoren negatiboak eta kostu oso altuak ekartzen dizkiela norbanakoei eta gizarteari, hala lan-merkatuaren nola ongizate orokorraren ikuspegitik begiratuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko abandonu goiztiarraren maila EBk 2020rako planteatu dituen xedeen oso azpiko tasetan dago. 2017ko datuen arabera⁴¹, euskal ikasleen % 7k uzten dituzte ikasketak goiz⁴², eta, beraz, ez daukate derrigorrezko hezkuntzatik haragoko titulaziorik.

Bi sexuen arteko aldeak nabarmentzen dira, % 8,5ekoa baita ikasle gizonen artean, eta % 5,5ekoa ikasle emakumeena.

Eskola-abandonu goiztiarraren tasa % 7 ingurukoa da; % 8,5ekoa mutilen artean, eta % 5,5ekoa nesken artean. Tasa horrek behera egin du azken urteotan, eta Europa 2020 Estrategiaren xedea lortu du.


2015ekoarekin alderatuta (% 9,7), eta, batez ere, 2008koarekin alderatuta (% 14,8koa baitzen), euskal tasak behera egin du, eta gure autonomia-erkidegoak xede europarra lortu duela esan nahi du horrek. Halaber, nabarmena izaten jarraitzen du estatuko batezbestekoarekin (% 18,3) eta Europar Batasuneko batezbestekoarekin (% 10,6) duen distantziak.

⁴¹ Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Hezkuntzako Adierazleen Estatuko Sistema. 2018

⁴² Abandonu goiztiarra esaten denean, gehienez ere DBHko lehengo etapa egin duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteez ari gara.

Abandonu goiztiarraren tasa (%). EAE

Espainia: 18,3
Europa: 10,6



Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Hezkuntzako Adierazleen Estatuko Sistema. 2008-2013-2015-2016-2017-2018

Datuak banakatuta, gurasoen hezkuntza-mailaren arabera alde handiak daudela ikus daiteke; hau da, inguruko hezkuntza-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago luzatzen da eskola-ibilbidea, baina, maila hori baxua denean, eskola-ibilbidea ere txikiagoa izaten da. Hala, lehen mailako ikasketak edo txikiagoak dauzkan ama dutenen % 39k goiz uzten dituzte ikasketak, goi-mailako ikasketak dauzkan ama dutenen % 3,8 soilaren aldean.

Bestalde, goi-mailako hezkuntza xede giltzarria da Europa 2020 Estrategiaren barruan, Europa ekonomia adimendun, jasangarri eta integratzaile bihurtzeko anbizioarekin: 2020rako, 30 eta 34 urte arteko biztanleen % 40k maila hori edukitzea da helburua. 2017ko datuen arabera, EAEko 25 eta 29 urte bitartekoen % 60,4k dauzkate goi-mailako ikasketak (nesken % 63k eta mutilen % 57,8k). Ehuneko hori % 44,3koa da Espainian, eta % 38koa Europar Batasunean⁴³.

**2015-2016
ikasturtean, ikasleen
% 85,9k amaitu zuten
DBH hori egitea
zegokien adin
teorikoan, estatuko
batezbestekoaren
gaintik (% 79,3).**

Aurrekoarekin oso lotuta, graduazio-tasa gordina dugu⁴⁴; horri esker, maila jakin bat dagokion adin teorikoan gaintzen duten ikasleen ehunekoak zein den jakin daiteke. Oro har, datuek erakusten dutenez, hezkuntza-mailak gora egin ahala, behera egiten du etapa jakin bat dagokion adinean amaitzen dutenen ehunekoak, eta gora egiten dute nesken eta mutilen arteko aldeek (neskek lortzen dituzte graduazio-tasa handiagoak).

2015-2016 ikasturtean, ikasleen % 85,9k amaitu zuten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) hori egitea zegokien adin teorikoan (15 urte), eta azken urteetan erregistratutako egoera hobetu du datu horrek (% 82,9koa izan zen ehunekoak 2014-2015 ikasturtean). Gainera, nabarmentzekoa da nesken (% 90) eta mutilen (% 82) artean dagoen 8 puntuko aldea⁴⁵.

⁴³ Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Hezkuntzako Adierazleen Estatuko Sistema. 2018

⁴⁴ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, adina edozein izanik ere hezkuntza-etapa hori arrakastaz amaitzen dutenen eta azken maila hasteko "adin teorikoan" (15 urte) dauden biztanle guztien arteko erlazioa islatzen du graduazio-tasa gordinak.

⁴⁵ Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2015/2016

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, adina edozein izanik ere hezkuntza-etapa hori arrakastaz amaitzen dutenen eta azken maila hasteko "adin teorikoan" (15 urte) dauden biztanle guztien arteko erlazioa islatzen du graduazio-tasa gordinak.

PISA⁴⁶ txostenaren emaitzak aipatu ditzakegu. Bertan, hainbat herrialdetako hezkuntza arloko emaitzen berri ematen da, hainbat gaitasun giltzarri (zientziak, matematikak eta irakurmena) ebaluatuta 15 urteko ikasleen artean.

EAEko ikasleek 2015eko PISA txostenean lortutako emaitzek ebaluatutako hiru gaitasunetan ELGaren batezbesteko maila gainditzen duten arren, ez dira iristen Europak 2020rako ezarritako xedera.

Aipatutako txostenaren arabera, ikasleen % 17,4k daukate maila ezegokia irakurmenean.

Emaitzek nolabaiteko genero-patroiak erakusten dituzte gaitasun batzuei dagokienez. Irakurmen-proban, mutilek neskek baino 8 puntu gutxiago lortu zituzten (mutilen % 21,6 daude maila ezegokietan, nesken % 13,4ren aurrean). Aldeak hain nabariak izan ez arren, neskek mutilek baino puntuatze okerragoa izan dute gaitasun zientifikoan eta gaitasun matematikoan.

Txosten batzuek⁴⁷ diotenez, patro horiek eragina izan dezakete a posteriori, prestakuntza-ibilbidea hautatzean. Neskak gutxiago sartzan dira espezialitate zientifiko-teknologikoetara, eta mutilek tradizionalki maskulinoetat jo izan diren prestakuntzetara jotzen dute gehienbat; humanitateekin eta gizarte-zientziekin zerikusia daukaten eremuetan, mutil gutxi egoten da.

Hala ere, garrantzitsua da errendimenduarekin lotutako beste adierazle osagarri batzuk ere kontuan hartzea. 2015-2016 ikasturtean, DBHko 4. mailako ikasleen % 92k lortu zuen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduako titulua eta 2016-2017 ikasturteko unibertsitatara sartzeko proben arrakasta maila aurkeztutako ikasleen % 97,65koa izan zen (emakumeen artean, ehunekoak gizonezkoen artean baino zertxobait altuagoa da, % 98); azken urteetan, kopuru horrek gora egin du (2007an, arrakastaren ehunekoak % 95 ingurukoa zen)⁴⁸.

Hezkuntzan egiten den gastuarekin, erakundeek hezkuntzari ematen dioten garrantzia neur daiteke, eta, aldi berean, hezkuntzak gizarte edo ingurune jakin batean izan dezakeen maila a priori adierazteko balio dezake gastu horrek.

EAEko unibertsitatez kanpoko zentro publikoetan ikasle bakoitzeko egiten den gastu publikoa⁴⁹ 8.976 eurokoa izan zen 2014an, eta ez dirudi azken urteotan zifra hori asko aldatu denik (aurreko urtean ikasle bakoitzeko egindako gastua baino % 2,16 txikiagoa da, eta duela 6 urtekoa baino % 1,56 handiagoa). Estatuko batezbestekoaren oso gainetik dago zifra hori, 2013an 5.231 euro gastatu baitzen ikasle bakoitzeko.

EAE	2014	2013	2008
Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako zentro publikoetan ikasle bakoitzeko egiten den gastu publikoa	8.976 €	9.175 €	8.838 €

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (MECD). Hezkuntzako Adierazleen Estatuko Sistema. 2008-2014

⁴⁶ Ikasleak Ebaluatze Nazioarteko Programa (PISA) ebaluazio-proposamen bat da, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) sustatu duena. Prospekziozko eta konparaziozko ebaluazio-azterketa hau hiru urterik behin egiten da, eta kontinente guztietako 70 herrialdek baino gehiagok hartzen dute parte. Bada, 15 urteko ikasleek bizitzarako duten prestaketa-mailari buruzko informazioa edukitzea da xede nagusia. Gazteek beren ezagutzak erabiltzeko eta heldutako erronkei aurre egiteko dituzten heziketaren, prestakuntzaren eta gaikuntzaren inguruan ikertzea da kontua. Hiru gaitasun giltzarri aztertzen dira: zientziak, matematikak eta irakurmena.

⁴⁷ EMAKUNDE. *Berdintasunaren balioak duen eragina Euskadiko Batxilergoko 2. urteko ikasleek goi-mailako ikasketak hautatzerakoan*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2016.

⁴⁸ Iturria: EUSTAT. Unibertsitate Estatistika.2017

⁴⁹ Hezkuntza sistemako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan ikasle bakoitzeko egiten den gastu publikoa, Lanbide Heziketa kenduta. Ikasleak denbora osoko balioak diren nazioarteko estatistikan erabiltzen den metodologiarekin bat.

Bestalde, azpimarratu beharra dago derrigorrezko ikasketetan, Haur Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian beketarako bideratzen den zenbatekoa; EAEn, 2015-2016 ikasturtean, 50.097.900 euro bideratu ziren beketara, aurreko ikasturteko zenbatekoaren antzera (49.715.100 euro); zifra horrek, bada, gutxika eta oso neurrian egin du gora azken urteotan.

EAE	2015/2016	2014/2015	2013/2014
Bekak derrigorrezko ikasketetan, Haur Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian	50.097.900 €	49.715.100 €	48.490.600 €

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (MECD). Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzaren Estatistika. 2013/2014, 2014/2015 eta 2015/2016.

Ongizate materiala

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak 27. artikuluan xedatzen duenez, haur orok dauka maila guztietan **garatu dadin bizi-maila egokia edukitzeko eskubidea**, eta gurasoen erantzukizuna da bizi-maila hori ematea, ahalbideen barruan. Halaber, gurasoek eskubide hori asebetze ahal izateko neurri egokiak hartzeko betebeharra ezartzen die estatuei, eta, hala behar bada, laguntza materiala eta laguntzeko programak eskaini behar dizkie; bereziki, elikadurari, arropenari eta etxebizitzari dagokienez.

Duela hamarka bat inguru hasitako krisiaren inpaktua ez da berdina izan, ezta izaten ari ere, gizarte osoarentzat, eta ondorio gehiago izan ditu kolektibo zaugarrienen artean: hortxe daude haurrak eta nerabeak. Hala, krisiari loturiko pobrezia areagotu izanak gehien kolpatu dituen taldeetako bat da haurren kolektiboa, eta inpaktu horrek ez dio beren orainari bakarrik eragiten, etorkizuna ere ukitzen baitie, eta ez da beti erraza izaten hori ikusgarri egitea.

Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen 2016ko Inkestaren⁵⁰ datuekin, sakonago azter daiteke diru-sarrerren mailaren arabera pobrezia-egoeran egoteko dagoen arriskua.

Inkesta horretatik ondoriozta daitekeenaren arabera, 15 urtetik beherako euskal biztanleen % 10,5 (34.390 haur eta nerabe) bizi dira benetako pobrezian⁵¹; hau da, oinarritzko premiak (batez ere, elikadurarekin, etxebizitzarekin, arroparekin eta oinetakoekin zerikusia dutenak) asebetetzeko behar besteko diru-sarrerarik ez duen familia batean bizi dira, eta familia horrek ez dauka egoera hori konpentsatzeko bestelako ondasunik.

15 urtetik beherakoek % 10,5 (34.000 inguru) beren oinarritzko premiak estali ezin ditzaketan etxeetan bizi dira.

2014ko datuekin alderatuta jaitsiera oso handia izan ez bada ere, aurreko hiru neurketetan gorantz zihuan joeran aldaketa gertatu dela erakusten du azken datuak (2008an, % 7,3; 2012an, % 9,5; 2014an, % 11,2).


Era berean, 15 urtetik beherakoek % 16,7 daude (54.700 inguru) benetako ongizaterik gabeko egoeran⁵². Tasa horrek, aurrekoak bezalaxe, joera-aldaketa izan du, eta 2008tik hazten zihuan joera gerarazi du. 2016an, % 13koa zen datua; 2012an, % 14,1ekoa, eta, 2014an, % 17,1ekoa.

Beraz, 54.696 haur eta nerabe inguru bizi dira gure gizartean espero diren gutxieneko ongizate- eta erosotasun-mailei eusteko beharrezkotzat jotzen diren ohiko gastuak epe laburrean egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten familietan (eta, halaber, baliabide nahikorik ez edukitze hori konpentsatzeko bestelako ondasunik ere ez dute).

⁵⁰ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Premiei buruzko Inkesta. Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestaren modulua. 2008-2012-2014-2016

⁵¹ Mantentze-pobrezia epe laburrean oinarritzko beharrak (batik bat, elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetakoekin zerikusia dutenak) asetzeko gastuei aurre egiteko behar adinako baliabide ekonomikorik ez izateari dagokio. Pobreziarako arriskuan egoteko, oinarritzko beharrei aurre egiteko adierazitako atalaseak baino diru-sarrera urriagoak izan behar dituzte etxegoneek. Askotariko arazoak edo arrisku-egoerak ez dira automatikoki bihurtzen benetako pobrezia-bizipen; alabaina, adierazle honekin, benetako pobrezia-egoeren inpaktua neur daiteke, biztanleen eguneroko bizitzan dauden ongizate-elementuek premiak asebetetzeko estaldura nahikorik ez edukitzearen ondoriozko arrisku-egoerak konpentsatzen ez dituzten inguruabarretara mugatuta.

⁵² Gizarte zehatz batean espero diren gutxieneko ongizate-mailei eusteko beharrezkotzat jotzen diren ohiko gastuak epe laburrean egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dagoenean hitz egiten da ongizate-gabezia. Gizarte horretako bizimoduan, ohituretan eta jardura arruntetan –gutxieneko baldintzetan bada ere– parte hartzea ahalbidetzen duten gastuak dira horiek. EAeko etxeak batez beste ezaugarritzen dituen gutxieneko gizarte-espektatiba eratzen duten ongizate-mailetara iristeko adierazita dauden atalaseetatik beherako diru-sarrerak dauzkatenak daude ongizate-gabeziarako arriskuan. Arrisku-egoerak ez dira automatikoki bihurtzen benetako prekaritate-bizipen; alabaina, adierazle honekin, ongizaterik gabeko benetako egoeren inpaktua neur daiteke, biztanleen eguneroko bizitzan dauden ongizate-elementuek premiak asebetetzeko estaldura nahikorik ez edukitzearen ondoriozko arrisku-egoerak konpentsatzen ez dituzten inguruabarretara mugatuta.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Premiei buruzko Inkesta. Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestaren modulua. 2008-2012-2014-2016

Adierazi beharra dago bi datuok daudela biztanleria orokorraren pobrezia-indizeen gainetik: haurren benetako pobreziaren tasa 4,8 puntu handiagoa da biztanleria osorako erregistratutakoa baino (% 5,7), eta haurren ongizate-gabeziaren tasa 5,9 puntu handiagoa da orokorra baino (biztanleria orokorraren tasa % 10,8koa da).

Hainbat ikerketak diotenez, guraso bakarreko etxeetan bizi diren biztanleek pobreziarako arrisku handiagoa dute⁵³ (batez ere, emakumeak buru diren etxeetan). Bada, etxe mota horien pobreziarako arriskua % 13,8koa da, etxeen multzoaren bikoitza ia (% 7,1). EAEn, 16 urtetik beherako 27.642 haur eta nerabe bizi dira familia mota horietan.

Aurreko adierazleez gain, interesgarria da beste batzuk ere aintzat hartzea, oinarrizko premien estaldurarekin lotura hertsirik ez badute ere familien ongizate-murrizketaren irudia ematen baitute.

Hala, AROPE tasa adierazle bat da, Europa 2020 Estrategiak pobreziaren eta gizarteratzearen inguruan duen xedearen zati dena, eta bazterketarako arriskua neurtzea ahalbidetzen du. Adierazle horrek,aldi berean, hiru azpiadierazle biltzen ditu:

- Pobreziarako arriskua (kontsumo-unitatearen diru-sarrerak batezbesteko errentaren % 60 baino txikiagoak direnean);
- Enplegu-intentsitate baxuko etxeak (lan egiteko adinean dauden kideek lan-ahalaren % 20 baino lan gutxiago egin badute);
- Material-gabezia zorrotza (Europa-mailan zehaztu diren 9 itemetatik 4 egin ezin ditzaketena⁵⁴).

⁵³ Mantentze-pobrezia epe laburrean oinarrizko beharrak (batik bat, elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetakoekin zerikusia dutenak) asetzeko gastuei aurre egiteko behar adinako baliabide ekonomikorik ez izateari dagokio. Pobreziarako arriskuan egoteko, oinarrizko beharrei aurre egiteko adierazitako atalaseak baino diru-sarrera urriagoak izan behar dituzte pertsonak, familiek edo etxeek. Gogora dezagun askotariko arazoak edo arrisku-egoerak ez direla automatikoki bihurtzen benetako pobrezia-bizipen.

⁵⁴ Hurrengo orrialdean xehetzen dira 9 itemak.

EAEEn, 16 urtetik beherakoen % 14,7 gizarte-bazterketarako arriskuan daude.

Tasa heren bat txikitu da 2015etik, eta Europako eta estatuko batezbestekoetatik oso azpira egoten jarraitzen du; hala ere, 16 urtetik beherako 48.000 pertsonaz ari gara.

INEren Bizi Baldintzen Inkestaren arabera, 2016an AROPE tasa % 14,7koa zen EAEko 16 urtetik beherako biztanleentzat; hau da, aurreko urtean baino 7 puntu portzentual gutxiago (% 21,8).

Beraz, 2008an % 13,9koa izatetik 2015ean % 21,8koa izatera igarotzeak finkatu zuen goranzko joerak atzera egin du, duela 10 urteko zifretara itzuliz.

Halaber, gaurko tasak egoera hobean kokatzen du gure autonomia-erkidegoa, Espainia (osorik hartuta) baino (% 32,9), eta Europakoa (% 26,9) baino askoz txikiagoa da gurea.⁵⁵

Enplegu-intentsitateari dagokionez, eta iturri berberaren arabera, EAEko 18 urtetik beherakoen % 10 bizi da enplegu-intentsitate oso baxuko familietan⁵⁶. Ehuneko hori, 2015eko (% 11,8) eta 2014ko (% 11,1) neurketekin alderatuta murriztu egin den arren, 2010ean baino askoz handiagoa da, % 3,6koa baitzen orduan. Estatu-mailan erregistratutakoa baino pixka bat txikiagoa da datua (% 11,6), eta Europako tasa baino zertxobait handiagoa (% 9,3).

Bestalde, INEren datuek diotenez, EAEko 18 urtetik beherakoen % 6,7 bizi da material-gabezia edo -gabetze zorrotza duten etxeetan; hau da, 9 item hauetako 4 egin ezin ditzaketen etxeetan: edo ezin daitezke urtean behin gutxienez oporretan joan; edota ezin dezakete haragiz, oilaskoz edo arrainez osaturiko otordurik egin bi egunetik behin gutxienez; edota ezin dezakete etxea tenperatura egokian eduki; edota ez daukate bat-bateko gastuei aurre egiteko gaitasunik; edota etxebizitza nagusiarekin loturiko gastuak (hipoteka edo alokairua, gas- eta komunitate-fakturak...) nahiz epekako erosketak ordaintzean atzeratu egin dira azken 12 hilabeteetan; edota ezin dezakete autorik eduki; edota ezin dezakete telefonorik eduki; edota ezin dezakete koloretako telebistarik eduki; edota ezin dezakete arropa-garbigailurik eduki.

Aurreko bi azpiadierazleetan bezala, tasaren goranzko joera hautsi da. Horrela, eta azken urteotan pixkanaka haziz joan den arren (2010an, % 2,7 zen tasa, eta, 2015ean, % 6,7), 2016an % 5era jaitsi da. Espainian, ehunekoa % 7,1eraino igo da urte berean, eta, Europan, % 8,9koa izan zen 2015ean.

Ildo berean, 18 urtetik beherakoak ardurapean dauzkaten euskal etxeen % 20,2k ez dauka bat-bateko gastuei aurre egiteko gaitasunik. Ehuneko altua izan arren, 2015ean (% 26,6) eta 2014an (% 25,2) baino zertxobait txikiagoa da, eta bost urte lehenago erregistratutakoaren oso antzekoa (2011n, % 20,3koa izan zen). EAEko tasa estatuko batezbestekoaren erdia baino txikiagoa da, 2016an % 41,2koa izan baitzen.

Gainera, 2015ean beste iturri batzuek argitaratutako datuek adierazten dutenez, EAEko haur eta nerabeak bizi diren familien % 2,27k daukate etxebizitza egoera eskasean (mendeko seme-alabak dauzkaten 6.700 familia ingururi eragiten die arazoak)⁵⁷.

⁵⁵ Iturria: INE. Bizi Baldintzen Inkesta. 2010-2014-2015-2016 (Europako azken datuak 2015ekoak dira).

⁵⁶ Etxe horietan, lan egiteko adinean zeuden familia-kideek lan-ahalaren % 20 baino lan gutxiago egin zuten elkarriketaren aurreko urtean (diru-sarrereren erreferentziako aldian). Ehuneko hori kalkulatzeko, familia-kideek erreferentziako urtean lan egindako hilabeteak zenbatzen dira batetik, eta, bestetik, familia-kide horiexek teoriaran lan egin ahal izan zituzten hilabeteak zenbatzen dira. Ratioa kalkulatu da, eta % 20 baino txikiagoa den zehazten. Aldagai hau ez da aplikatzen 60 urte edo gehiago dauzkaten pertsonekin.

⁵⁷ Iturria: Eusko Jaurilaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskal Familien eta Familia-Etxeetako Inkesta (FFEI). 2015

Gaur egun, etxebizitza da euskal familien gastu nagusietako bat, eta, krisiarekin, ugaritu egin dira etxebizitza ordaintzen ez dutenen egoerak; batzuetan, gainera, bahiturak eta desjabetzeak ekartzen dituzte egoera horiek. Desjabetze-arriskuan edo -prozesuan dauden edo hipoteka betearazteko prozesuan dauden eta mendeko seme-alabak dauzkaten familien ehunekoak % 0,44koa da; hau da, EAEn, 1.290 familiari baino gehiagori eragiten die arazo horrek⁵⁸.

Bestalde, dirudienez, EAEn Diru-sarrerak Bermatzeko Sistema eta Gizarte Zerbitzuen Sistema sendotu izanak krisiaren ondorioak arintzen lagundu du, zati batean bada ere; izan ere, horien bidez, baliabiderik ez dutenei gizarteratzen laguntzen zaie, eta bizitzaren oinarritzko premiei aurre egiteko bitarteko ekonomikoak edukitzeko eskubide subjektiboa aitortzen zaie gehien behar dutenei. EAEko haurren pobrezia-tasei eusten laguntzen duten babes-sistemak dira, eta estatuko edo Europako mailan erregistratu diren kotetara iristea saihesten dute.

2017an, 18 urtetik beherako seme-alabak zituzten 22.915 familiak jaso zuten diru-sarrerak bermatzeko errenta⁵⁹ (diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuten familien guztizkoaren % 30,48 ziren). Zehazki, 18 urtetik beherako 36.861 haur eta nerabe (gutxi gorabehera, adin horretako euskal biztanleen % 10⁶⁰) izan ziren prestazio horien onuradun.

2017an, 18 urtetik beherako 36.861 adingabe izan ziren diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun.

Lurraldearen arabera, alde handiak daude. Hala, Arabako adingabe onuradunak lurralde horretako adingabeen % 13 dira; Bizkaian, % 11 dira, eta, Gipuzkoan, % 7,38.

Azpimarratzekoa da seme-alaba adingabeak dauzkaten eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten familien kopurua, 2016an baino % 3,45 txikiagoa izan arren, 2015ean edo 2014an baino pixka bat handiagoa izatea (% 19koa izan zen bi kasuetan).

⁵⁸ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskal Familien eta Familia-Etxeetako Inkesta (FFEI). 2015

⁵⁹ Iturria: Lanbide. Euskal Enplegu Zerbitzua. 2017.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta aldizkako prestazioa da, eskubide subjektibo bati erantzuten diona, ekonomikoa, eta oinarritzko premiei loturiko gastuei edota laneratzeko nahiz gizarteratzeko prozesu baten ondoriozko gastuei aurre egiteko behar besteko diru-sarrerarik ez duten bizikidetz-unitateetako kideei dago zuzenduta.

⁶⁰ Ehuneko hori kalkulatzeko, INEren 2017ko Errola Jarraituaren Estatistikaren arabera 18 urtetik beherakoak diren biztanleak hartu dira erreferentziatzat.

Kultura, aisialdia eta astialdia

Astiaaldiak sekulako garrantzia dauka haurren eta nerabeen garapen osoan, eta bizitza kulturean parte hartzea modu aktiboan gizarteratzeko era da. Bada, *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak* **31. artikuluan** jasotzen du haur guztiek dutela atseden hartzeko, aisiarako, **jolasteko** eta beren adinerako egokiak diren jolas-ekintzetan aritzeko **eskubidea**, bai eta bizitza kulturean eta arteetan aske parte hartzeko eskubidea ere. Haurrek bizitza kultural eta artistikoan osoki parte hartzea errespetatu eta sustatu beharko dute estatuek, bizitza kulturean, artistikoan, jolasekoan eta aisialdikoan baldintza beretan parte hartzeko aukera egokiak emanez.

Nerabeen erdiak astialdiko jarduera antolatuetan hartzen dute parte (kirola, musika, antzerkia...).
Zehazki, % 56 ibiltzen da kirol-jarduera antolatuetan (lau mutiletik hiru ia).

Datuek erakusten dutenaren arabera, gero eta aisialdiko eta astialdiko jarduera antolatu gehiago dago, zeinak helduren batek zuzentzen eta gainbegiratzen dituen (eskolaz kanpoko jarduerak, ludotekak eta abar) eta gurasoentzat gune "seguruak" izaten diren.

Espanian 14 eta 18 urte bitartekoen % 50,5ek hartzen dute parte astialdiko jarduera antolatuetan (kirola, musika, antzerkia...), astean bi aldiz edo gehiagotan. Jarduera horiek ohikoagoak izaten dira mutilen artean (% 61,8), eta zertxobait jaisten dira zaharragoen artean (17 eta 18 urte bitartekoen % 47,7)⁶¹.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da haurrek eta nerabeek aisialdi-baliabide antolatuetara iristeko duten ahalak zerikusia duela beren familien bitarteko ekonomikoekin. Zentzu horretan, datuek diote nolabaiteko arrakala egon daitekeela haurrek aisialdirako dituzten sarbidean eta aukeretan. Jarduera mota horietan parte hartzen duten haurren eta nerabeen ehunekoa nabarmen handiagoa da maila sozioekonomiko altua duten familietan bizi direnen artean (% 57,5), maila sozioekonomiko baxua dutenen artean baino (% 40,1).

Sexuen arteko aldeak zerikusia eduki lezake kirolak jarduera antolatuetan duen pisuarekin. EAEko 14 eta 18 urte artekoen % 56 aritzen da kirol-jarduera antolatuetan, eta ehuneko hori askoz handiagoa da mutilen artean (% 74,4), nesken artean baino (% 39,8)⁶².

11 eta 18 urte bitarteko 10 euskal biztanletik ia 8k ariketa fisikoa egiten dute astialdian, astean bi aldiz gutxienez (nesken % 69k).

Astiaaldian astean bi aldiz gutxienez ariketa egiten dutenen ehunekoa % 76,9koa da EAEko 11 eta 18 urte bitartekoaren artean. Zifra horrek bilakaera positiboa izan du azken urteetan (2006an, % 58,2koa zen), eta Espainiako batezbestekoaren oso gaintik dago, adin-tarte horretako biztanleen % 69,9k egiten baitu hori⁶³.


Hala ere, nabarmendu beharra dago mutilen eta nesken artean 8 puntu portzentualeko aldea dagoela, mutilen alde (nesken % 69,2k egiten dute ariketa fisikoa astiaaldian astean bi aldiz gutxienez).

⁶¹ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

⁶² Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

⁶³ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Jarduera fisikoa astialdian, astean 2 aldiz gutxienez: 12 urtetik beherako unibertsitatez kanpoko ikasleak. EAE




Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Kirolaren inguruko datuen bilakaera benetan ona bada ere, ez dugu ahaztu behar 15 eta 24 urte arteko euskal nerabeen eta gazteen % 11,3k uste dutela beren auzoan edo herrian ez daukatela ariketa fisikoa egiteko instalazio egokirik⁶⁴.

Gazteen artean sedentarismoa prebenitzeari dagokionez, garrantzitsua da kontuan izatea aisialdiko eta astialdiko jardueren artean gero eta pisu handiagoa dutela informazioaren eta komunikazioaren teknologiek.

Euskal haur eta nerabeek, batez beste, egunean 2,1 ordu ematen dituzte egunean telebista, bideoak (Youtube eta antzekoak barne hartuta), DVDak eta bestelako entretenimenduak pantailan ikusten, eta egunean 1,4 ordu igarotzen dituzte gailu elektronikoen jolasean (ordenagailuko jokoak, bideo-jokoak, tabletak, smartphone-ak eta abar)⁶⁵.

Euskal haur eta nerabeek 2 ordu igarotzen dituzte egunean telebistari begira, eta ordu eta erdi ematen dute pantailaren aurrean gailu elektronikoen jolasean.



Denbora horrek gora egiten du 15 eta 16 urte dauzkaten artean (egunean 2,4 ordu eta 1,8 ordu ematen dituzte jarduera horiekin, hurrenez hurren). Gogoan eduki behar da jarduera horiek, aisialdi pasiboa eragiteaz gain, gehien-gehienetan bakarrik egiten direla.

Hautzaroan eta nerabezaroan gizarte-sarea pixkanaka murrizteak, harremanak eskasteak eta autonomia gutxiago garatzeak ekar ditzakeen ondorioei buruz hausnartu dute aditu batzuek, eta gertaera horiek sarritan helduek segurtasunik gabeko egoerak saihesteari begira sustatzen dituzten prebentzio-estrategien ondorio izaten direla ere adierazi dute (denbora gutxiago igarotzen dute katean, harreman gutxiago izaten dute ingurukoekin...).

⁶⁴ Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzak. Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta. 2018

⁶⁵ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Ikasle asko lagunekin eskolatik kanpo geratzeko ohitura galtzen ari dira. Azkenengo datuen arabera, 2014koak horiek, 11 eta 18 urte bitarteko euskal haur eta nerabeen % 76,1 geratzen dira lagunekin eskolatik kanpo astean behin gutxienez, baina, era berean, lautik batek-edo ez du egiten⁶⁶.

EAEko lau haur eta nerabetik bat ez da lagunekin geratzen eskolatik kanpo.

Aurreko datuekin batera sare sozialen erabileraren gorakadaz ohartarazten duten datuak aztertuz gero, berdinen taldearekin dauzkaten harremanak aurrez aurrekoak baino gehiago birtualak direla ondoriozta dezakegu.

Espanian sare sozial batean erregistratzeko eta profila edukitzeko legezko gutxieneko adina 14 urtekoa den arren (haurrentzako espezifikoak kenduta), 12 urteko edo gehiagoko –unibertsitatez kanpoko– ikasleen % 38,3k sare sozialak (Tuenti, Facebook, Twitter, Messenger eta abar) egunero bi ordu baino gehiago erabiltzen dituela dio kontu honen inguruko xehetasun ugari ematen dituen ikerketa batek⁶⁷.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek izan duten garapen handiaren ondorioz, gero eta gehiago dauzkagu horiek gure egunerokotasunean txertatuta, eta asko aldatu dira gizarteak oro har harremanak eraikitze eta komunikatzeko dituen moduak; are gehiago, ordea, eta, bereziki, haurren eta nerabeen artean, IKTekin duten harremana askoz ere handiagoa baita beste biztanle-talde batzuek eduki dezaketena baino.

Alabaina, badirudi ohitura batek astialdia berdinen taldearekin aurrez aurre partekatzea ekarri duela eta gure autonomia-erkidegoan indarra hartzen ari dela adin horretako biztanleen artean: lonjetara edo etxabeetara joateaz ari gara. 2011ko datuen arabera, 12 urteko edo gehiagoko –unibertsitatez kanpoko– ikasleen % 20,7 joaten da lonjetara (berera, lagunenera...) astero, eta, bost urte lehenago (2006an), % 17,2 ingurukoa zen zifra hori⁶⁸.

Astaldiaren erabilerari buruz, interesgarria da adieraztea 13 eta 18 urte bitarteko euskal biztanleen % 76,9k uste dutela gure autonomia-erkidegoan astialdia inbertitzeko toki onak daudela (adibidez, parkeak, dendak, aisialdirako zentroak...), estatuko batezbestekoaren gainetik (% 63,8). Dena dela, datuak era berean adierazten du taldearen % 23k uste duela hobekuntza-marjina dagoela erabilgarri dauden baliabideei eta ekipamenduei dagokienez⁶⁹.

11 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabeen % 23k ez dute inoiz edo ia inoiz irakurtzen astialdian.



Bestetik, arreta jarri behar zaio kultur jarduera jakin batzuek gazteenen astialdian duten presentzia handiago edo txikiagoari.

2011ko datuen arabera, 12 urteko edo gehiagoko –unibertsitatez kanpoko– ikasleen % 23,2k ez du inoiz edo ia inoiz irakurtzen libururik, aldizkaririk, komikirik... ikasketetako liburuetatik harago. Alabaina, badirudi zifra nabarmen murriztu dela 2006tik hona, orduan % 49,5 baitziren⁷⁰.

⁶⁶ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014 Lagunekin eskolatik kanpo astean behin gutxienez 20:00ak baino lehen geratzen diren biztanleei buruzkoa da datua.

⁶⁷ Iturria: Droga-mendekotasunen Deustu Institutua. Drogak eta eskola VII. 2011.

⁶⁸ Iturria: Droga-mendekotasunen Deustu Institutua. Drogak eta eskola VII. 2011.

⁶⁹ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

⁷⁰ Iturria: Droga-mendekotasunen Deustu Institutua. Drogak eta eskola VII. 2011.

Iturri berberak dioenez, 12 urteko edo gehiagoko –unibertsitatez kanpoko– biztanleen talde horren barruan, guztizkoaren % 62,2 joaten dira hilabetean behin gutxienez zinemara, kontzertuetara, museoetara, erakusketetara, antzerkira eta abarretara.

Azkenik, euskalduntzeari dagokionez, azpimarratu beharra dago 2016an 10 eta 14 urte bitarteko adingabeen % 87,02 zirela euskaldunak⁷¹, duela bost urte baino 3 puntu gehiago; bada, euskal biztanleek oro har duten ehunekoaren oso gaineratik dago (% 40,92) zifra hori.

10 eta 14 urte bitartekoen euskaldunen pisua		%
	Bizkaia	81,2
	Gipuzkoa	92,13
	Araba	74,59
	EAE	83,98

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. 2016

⁷¹ Euskaraz ondo hitz egiten duten pertsonak (euskaraz ondo, zailtasunekin edo batere irakurri edo idazten duten gorabehera).

Haurtzaro zaugarria

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 19. artikulua jasotzen duenez, estatuak gurasoek edo zaintzaileek emandako **edonolako tratu txarretatik babestu** behar ditu **haurrak**, eta tratu txarrak prebenitzeko eta tratatzeko neurriak ezarri behar ditu. **34. artikuluan**, halaber, estatuek haurrak **esplotazio mota guztietatik eta sexu-abusuetatik babesteko** konpromisoa dutela ezartzen da.

Haurren aurkako tratu txarrak gizarteko arazo nagusien artean daude mundu-mailan. Justizia-arazotzat ez ezik, osasun publikoko arazotzat ere har eta trata dadila nahi du OMEk.

2017an, Ertzaintzak haurren eta nerabeen aurkako 1.317 eraso erregistratu zituen EAEn. Eraso horien % 57 familia eremuan gertatu ziren.

2017an bakarrik, Ertzaintzak 18 urtetik beherakoen kontrako 1.317 biktimizazio (indarkeria-gertaera) erregistratu zituen⁷² gure autonomia-erkidegoan. Zenbaki horrek gora egin du, 2016an (1.158), 2015ean (1.299) eta 2014an (1.265) erregistratutako biktimizazioei dagokienez. Kasuen % 54,1ean, biktima neskato bat izan zen, eta jazoeren % 57,3 familia eremuan gertatu ziren; hau da, biktimaren familia-inguruneko norbait izan zen erasotzailea.

Urte berean, 385 neskato eta emakume nerabe izan ziren genero-indarkeriaren biktima. Senideren batek (% 47,5) edo bikotekideak edo bikotekide ohiak (% 18,5) erasotu zituzten gehienak.

Horien artean, urte horretan 18 urtetik beherako 385 emakume genero-indarkeriaren biktima⁷³ izan zirela esan behar da. 2016koarekin alderatuta (285), zifra asko hazi dela esan nahi du horrek, eta 2015eko (362) eta 2014ko (386) mailetan kokatzen da.

72 neskato edo emakume nerabe erasotu zituzten beren bikotekideek edo bikotekide ohiak (% 18,7), eta 180 familiako gizon batek (% 46,75). Bestalde, 129 familia eremutik kanpoko sexu-indarkeriaren biktima izan ziren (% 33,5).

Genero-indarkeriari edo emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez, zuzeneko erasoak eduki dituzten haurrez gain, biktimatzat hartu behar dira indarkeria mota hori jasan duten emakumeen seme-alabak ere; izan ere, normalean ikusezin bihurtzen diren arren, gaur egungo legediak biktimatzat jotzen ditu.

⁷² Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritzak. Ikerketen eta Azterketen Atala. 2017

Biktimizazio-kopuruari egiten dio erreferentzia; hau da, aldi jakin batean zigor arloko delitu baten biktima izan direnen eta Ertzaintzak erregistratu duen kopuruari. Pertsona bera biktimizazio baten baino gehiagoren xede izan daiteke. Bi mota bereizten dira: bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa (genero-indarkeria) edo familia barrukoa (aitak, semeak, nebak... eragindakoa) eta gainerakoak (ikaskideak, lankideak, auzokideak... eragindakoa edo ausazkoa; hots, askotan gertatzen den bezala, biktimaren eta erasotzailearen artean aurretiko harremanik ez dagoelarik), generoko edo etxeko indarkeriaren eremutik at. Bi eremuetan aurkeztu diren datuetan, ez dira jasotzen Zigor Kodeak aurrez ikusten dituen zigor arloko arau-hauste guztiak, "pertsonen aurkako" arau-hausteen kontzeptu zabalean sar daitezkeenak jasotzen baitira; hala nola, hauek: Giza hilketako delitua eta horren formak, abortu delitua, lesio delitua, askatasunaren kontrako delituak (bahiketa, mehatxuak, derrigortzeak...), tortura eta osotasunaren kontrako delitua (ohiko tratu txarrak, irain eta iseka delitua familia eremuan), gizakien salerosketa delitua, sorospen-eginberrara ez betetzearen delitua, bizilekua bortxatzearen delitua, ohorearen kontrako delitua (kalumnia eta irain delitua), segurtasuneko eta kautelazko neurriak hausteko delitua, familia-harremanen inguruko delituak, sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitua...

⁷³ Genero-indarkeria edo emakumeen kontrako indarkeria egiturazko indarkeria da, emakumeen bizitzaren testuinguru guztietan agertzen dena (eskolan, lanean, familian, eremu sozial eta politikoan...). Indarkeria mota hori ezartzen duten gizonak sufrimendu psikologiko, sexual, fisiko edo moralaz baliatzen dira, askotariko bitartekoak erabiliz; hala nola, bitarteko fisikoak, ahozkoak, keinuen bidezkoak, elektronikoak eta beste batzuk. Datu horiek Ertzaintzak emakumeen kontrako indarkeriari buruz erregistratutako estatistika-informazioa jasotzen dute. Aldi jakin batean zigor arloko delitu baten biktima izan diren emakumeak zenbatzen dira biktima gisa. Gizonek erabilitako indarkeriari buruzkoak dira datuak. Hiru indarkeria mota biltzen ditu: bikotekideak edo bikotekide ohiak erabilitakoa, beste senide batek (aitak, semeak, nebak...) erabilitakoa eta familia eremutik kanpoko beste gizon batek erabilitako sexu-indarkeria.

Datozen urteetan seme-alaba horiei buruzko datuen bilketa eta sistematizazioa formalizatzen joatea espero dugu; hala ere, oraindik, orientatzeko erreferentziatzat erabil dezakegu bikote barruko tratu txarrek kaltetutako mendeko seme-alabak dauzkaten familien kopurua: seme-alabak dauzkaten familien % 0,17 dira.⁷⁴

Ertzaintzak erregistratutako kasuak osatze aldera, kontuan har daitezke Haurren Aurkako Ustezko Tratu Txarren Erregistro Bateratuko (RUMI) datuak. Iturri horren arabera, haurrak babesteko zerbitzuek **haurren aurkako ustezko tratu txarren 917 kasu** (horien % 76,3 mutikoei dagozkie) **erregistratu zituzten** 2016an EAEn (aurreko urtean baino % 33 gehiago eta 2014an eta 2015ean erregistratutako datuen antzera)⁷⁵. Nabarmentzekoa da haurren aurkako ustezko tratu txarren 224 kasu (% 24,4) larriak izatea.


Azken urteotan, gizartean hazi egin da eskolako elkarbizitzaren eta berdinen arteko tratu txarren inguruko kezka.

Eskura ditugun datuek diotenez, eskolako tratu txarren kasuen kopuruak gora egin du 2009tik, pixkaka, Lehen Hezkuntzan eta DBHn, eta maila baxuenetan erregistratu dira ehuneko altuenak. Alabaina, txosten espezializatu batzuekin bat etorritik, hezkuntza-zentroak gai horren inguruan gehiago kontzientziatu eta prestatu izanak eta informazio gehiago edukitzeak gaitasun handiagoa ematen du lehen tratu txartzat jotzen ez ziren portaerak orain halakotzat hartzeko, eta, horren ondorioz, erregistratutako kasuen kopuruak gora egin du, baina horrek ez du esan nahi duela urte batzuk baino benetako kasu gehiago dagoenik.

2016ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako ikasleen % 22,7⁷⁶ eman zizkieten tratu txarrak⁷⁷ beren berdinek hezkuntza eremuan. Sexuaren araberako aldeak ikus daitezke (nesken % 20k eta mutilen % 25,3k jasan dituzte tratu txarrak), eta nabarmentzekoa da jatorri atzerritarra duten ikasleen artean askoz ere intzidentzia handiagoa egotea (horien % 32,3k jasan dituzte). Aurreko kontsultan, hiru urte lehenago, % 21,7an kokatu zen indize orokorra.

Bost ikasletik batek-edo eskolan berdinen arteko tratu txar motaren bat sarritan jasan izana baieztatu du

Berdinen arteko tratu txarrak jasan dituzten Lehen Hezkuntzako euskal ikasleak



Iturria: ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrei buruzko txostena, 2016.

⁷⁴ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskal Familien eta Familia-Etxeetako Inkesta (FFEI). 2015

⁷⁵ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa (MSSSI). Haurrak babesteko neurrien estatistika-datuen aldizkaria. 2013-2014


⁷⁶ Tratu txarren 2016ko indize orokorra kalkulatzeko, tratu txarren 18 portaerak hartu dira kontuan Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetan.

⁷⁷ Edozein motatako tratu txarren hamazortzi edo hemeretzi portaeretatik gutxienez bat "askotan" eta "beti" jasan duten ikasleen ehunekoa adierazten du (tratu txarrak askotarikoak izan daitezke: eraso fisikoak, ahozko erasoak, bazterketak, gauzak erasotzea, ziberbulling-a, sexu-erasoa...).

Gogora ekartzeko, esan beharra dago ikerketa horien esparruan hau hartzen dela berdinen arteko tratu txartzat:

- Mina, beldurra edo larritasuna eragin nahi duen asmo txarreko ekintza da. Erasotzailearen eta biktimaren artean harreman asimetrikoa egoten da, desberdinkeriazko botere-harremana.
- Errepikakorra da.
- Hainbat forma har ditzake: erasotua aurrean nahiz kanpoan egonik egiten diren ekintzak izan daitezke; ahoz baztertuta, eraso fisikoaren bidez edo gizarte-bazterketaren bidez adieraz daiteke, eta pertsonaren aurkako zuzeneko ekintzak nahiz zeharkako ekintzak (bere objektu pertsonalak, senideak edo lagunak erasotuta, adibidez) egin daitezke, baita mehatxuen bidez, beldurra eraginez... ere.
- 18 urtetik beherako batek antzeko adina duen beste bati egiten dio.

Berdinen arteko tratu txarrak eskolan. Lehen Hezkuntzako ikasleak. EAE. 2016



Iturria: ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrei buruzko txostena, 2016.

Grafikoari buruz, adierazi beharra dago ahozko tratu txarrak (% 15,6) eta gizarte-bazterketa (% 8,3) tratu txarrak emateko modu sarrienak diren arren guztiak areagotu direla 2012ko datuetatik hona.

Haurrak eta nerabeak, oro har, trebeak dira IKTak erabiltzen, eta horrek, abantaila handia izateaz gain, aukera handiagoak eskaintzen dizkie prestakuntzari eta informazioa arin eta eraginkor kudeatzeari begira; hala ere, ordea, garrantzitsua da IKTak ezegoki erabiltzeak ekar ditzakeen arriskuei begiratzea.

Ikerketa batzuek (*EUKids Online* eta *Net Children Go Mobile* ikerketek, adibidez) agerian jarri dute gurasoen bitartekaritza aktiboak min-bizipenak murriztu ditzakeela, aukerak mugatu gabe; hau da, adingabeekin linean egiten dutenari buruz hitz eginez, jarduerak partekatuz eta nabigatzen duten bitartean beren ondoan eseriz, arriskuekin zerikusia duten aholkuak emanez eta arazoak dauzkatenean lagunduz.

Lehen Hezkuntzako ikasleen % 13,6k ziberbulling-a jasan zuten 2016an, eta horien ia % 3,3 askotan gogaitu, mehatxatu edo umiliatu zituzten Internet bidez.

Zentzu horretan, eta aurreko iturriko datuen arabera, Lehen Hezkuntzako (3. zikloko) ikasleen % 13,6k⁷⁸ ziberbulling motaren bat⁷⁹ jasan zuen bere berdinen aldetik kontsulta egin aurreko urtean (beti, askotan edo batzuetan), eta tratu txar mota horren intzidentzia gogorak (beti edo askotan)⁸⁰ horien % 3,3ri eragingo lieke. Ikerketa horren testuinguruan, ziberbulling kasu baten aurrean egongo ginateke, adingabe batek beste adingabe bat Internet bidez, telefono mugikorren bidez edo bestelako teknologia telematikoen bidez oinazetzen, mehatxatzen, zirikatzen, umiliatzen edo gogaitzen badu.

Halaber, DBHko ikasleen % 32,3k baieztatu dute ikaskide batzuk sexu-joerarengatik edo neska nahiz mutil izateagatik nola baztertu dituzten ikusi izan dutela eskola eremuan. Datua 2012an baino ia sei puntu txikiagoa da (% 38).

Kontu hauen lekuko izan diren DBHko ikasleen ehunekoa	%
Gaytzat hartzeagatik bazterketa-kasuak	23,6
Lesbianatzat hartzeagatik bazterketa-kasuak	7,3
Neska izateagatik bazterketa-kasuak	5,9

Iturria: ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrei buruzko txostena, 2016.

Eskola eremutik eta berdinen arteko indarkeriatik harago, bestelako diskriminazio motez hitz egin behar da. *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 2. artikulua* ezartzen duenez, haurrak **diskriminazio mota orotik babesteko** neurriak hartu behar ditu estatuak.

Horri buruzko informazioa jasotzen duen ikerketetako batek adierazten duenaren arabera, eta 2014ko datuen arabera, 15 urtetik beherekoen % 2k daukate gizarte-bazterketako arazoak jatorri sozial edo geografikoagatik, arrazagatik, etniagatik, kulturagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik edo atzeritarra izateagatik⁸¹. Lau urte aurrerago adin-tarte horretan arazo horiek zeuzkatenen ehunekoa % 7,2koa zen.

Bestetik, Familia Elkarguneen erabiltzaileen datuak ere zaurgarritasun-egoera berezian dauden haurren eta nerabeen ingurukoak dira (Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek gurasoen edo tutoreen esku jartzen dituzte Familia Elkarguneak, adingabeak bisitatu edo trukatu ahal izan ditzaten, familia-nukleoa adostasunik gabe, gatazkarekin, tratu txarrengatik... hautsi den kasuetarako). 2017an, 18 urtetik beherako 1.145 adingabe artatu zituzten elkarguneetan, Eusko Jaurlaritzak epailearen aginduz bideratuta⁸²; bi urte lehenago baino % 7,6 gehiago.

Askotan, gizarteratze-arazoek eta gatazkek zerikusia izaten dute desagertzeekin. Nahiz eta datuek esaten duten urte batean desagertzen diren pertsonak urte berean agertzen direla hein handi batean, fenomeno horren goranzko joera antzematen da. 2017an, 18 urtetik beherako 4.024 pertsona desagertu zirela erregistratu zen (1.642 Bizkaian, 1.322 Gipuzkoan eta 1.060 Araban); hau da, aurreko urtean baino 640 desagertze gehiago egon ziren⁸³.

⁷⁸ Nahiz eta txostenak 2016tik aurrera Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei egindako kontsulta jasotzen duen, erakutsi den datua zuzenduta dago, 2012ko datuarekin alderatu ahal izateko; beraz, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailen buruzkoa da.

⁷⁹ Ziberbulling kasu baten aurrean egongo ginateke, adingabe batek beste adingabe bat Internet bidez, telefono mugikorren bidez edo bestelako teknologia telematikoen bidez oinazetzen, mehatxatzen, zirikatzen, umiliatzen edo gogaitzen badu. Intzidentzia orokorrak 6 kontu hauetatik gutxienez 1 jasatearekin batera hartzen ditu kontuan "beti, askotan eta batzuetan" maiztasunak: 1) mehatxatzeko, iraintzeko edo burla egiteko bidaltzea mezuak SMS, WhatsApp (mugikorra), Tuenti edo Facebook (edo Internet) bidez; 2) sare sozialetatik kentzea, txatetatik bazterzea; 3) Ikaskideren baten argazkiak, irudiak edo mezuak Internetez edo mugikorrez hedatzea haren aurka egiteko; 4) Mugikorrarekin grabatzea eta irudiok hedatzea, haren aurka egiteko; 5) Mugikorrarekin grabatzea egin nahi ez duen zerbait egin dezan, mehatxuekin; 6) Ikaskideren baten kontura sartu eta haren plantak egitea, lagunekiko arazoak sorraraziko dizkion mezuak eta irudiak bidaltzeko.

⁸⁰ Intzidentzia gogorak 6 kontu horietatik gutxienez 1 jasatearekin batera hartzen ditu kontuan "beti eta askotan" maiztasunak (ikus aurreko oharra).

⁸¹ Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika. Gizarte Premiei buruzko Inkesta. 2014

⁸² Iturria: Justizia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzak. Deribazio Judizialaren bidezko EAEko Familia Elkarguneen Ebaluazio Txostena. 2017


⁸³ Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritzak. Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza. 2014-2017

Haurrei eta nerabeei arreta emateko zerbitzuak (116 111 telefono doako eta anonimoak, EAEn Zeuk Esan izena duenak) 2017an 532 kontaktu jaso zituen; % 46,2 18 urtetik beherakoenak eta % 53,7 helduenak.

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu horrek orientazioa, aholkua eta informazioa ematen dizkie arazoren bat, zalantzaren bat edo kezka baten duten edota jazarpen- edo indarkeria-kasuen edo bestelako eraso biktima edo lekuko diren adingabeei, bai eta inguruko adingabe baten egoerarekin kezkatuta dauden helduei (senideei, profesionalei eta abarri) ere.

Urte horretan zerbitzuarekin harremanetan jarri ziren adingabeen % 56 neska izan ziren, eta kontsulta gehienek ondoez psikologikoarekin (% 21), elkarrizketa eta komunikazioarekin (% 20), harreman afektibo-sexualekin (% 13) eta berdinen arteko harremanekin (% 12) eduki zuten zerikusia.

Adingabeek Zeuk Esan zerbitzura egindako kontsulta telematikoak. EAE. 2017



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. 2017

Haurrak eta nerabeak bereziki zaugarriak izateak hainbat indarkeria motaren biktima izateko aukera areagotzen duen arren, batzuetan, haurrek eta nerabeek hausten dute legea, eta erasotzaile bihurtzen dira. 2016an, EAEn 18 urtetik beherako 482 adingabe zigortu zituzten epai irmoarekin⁸⁴, eta horien % 80 izan ziren mutilak.

EAEn, 2015ean, emakumeen aurkako indarkeria erabili zuten gizonen % 3,68k 18 urte baino gutxiago zuten.

2017an, emakumeen aurkako indarkeria erabili zuten adingabeak 146 izan ziren, mota horretako erasotzaileen % 3,67. Azken urtean adingabe erasotzaileen kopuruak gora egin duela ikusi da, aurreko urteekin alderatuta (100 eta 104 artean izan ziren 2014an, 2015ean eta 2016an)⁸⁵.

⁸⁴ Iturria: INE. Adingabe Zigortuen Estatistika. 2016

⁸⁵ Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Ikerketen eta Azterketen Atala. 2017

Datu horiek Ertzaintzak emakumeen kontrako indarkeriari buruz erregistratutako estatistika-informazioa jasotzen dute. Aldi batean emakumeen kontrako indarkeriaren eremuan delituren bat egin duten erasotzaileak zenbatzen dira.

